

BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1994ko maiatza. 2. zenbakia. Doan banatzen da.


izan zaitez

bi tarte kari





Gatazken konponbidez mintzo

ALLURRALDE UDAL KIROLDEGIA



ANDOAIN
Tfnoa.: 30.01.47



UDA 94ko EKINTZAK (Uztaila)



ESKUALDEKO EKINTZAK

PARAPENTEA	8.000 pta.
HIPIKA	5.000 pta.
MENDIKO EKINTZAK	21.500 pta.
✓ Eskalada, Arroilen jeitsiera, Trekking, B.T.T., Piraguismoa, Hipika.	

HERRIKO EKINTZAK

IGERIKETA	2.800 pta.
✓ 0, I eta II mailak	
TENISA	2.625 pta.
SQUASHA	3.000 pta.
SOINKETA	2.625 pta.
✓ Aerobic, Mantenimenduko soinketa, Prestakuntza fisikoa.	
ARKU-TIRAKETA	5.000 pta.

* Bazkide ez denak prezio altuagoa ordaindu beharko du.



ABONUAK

Seihilabetekoa (Uztail-Abendua)

FAMILIARRA	9.500 pta.
BANAKAKOA	6.300 pta.

* %25eko beherapena izango dute langabe-, jubilatu- edo gazte-txartela dutenek eta 18 urtetik beherakoek.

SARRERA

18 urtetik gorakoek	425 pta.
18 urtetik beherakoek	210 pta.

ORDU-ERRESERBA

SQUASH	425 pta.
Squasheko raketak	250 pta.
Squasheko pilotak	50 pta.
JOKALEKUA	2.100 pta.
Jokalekuaren 1/3-a	775 pta.
Jokaleku osoa abonatu ez direnak	4.200 pta.

GORPUTZ ZAINKETA:

Sauna-hidromasaiako saio 1	325 pta.
Sauna-hidromasaiako 10 saio	2.800 pta.
Solariumeko saio 1	425 pta.
Solariumeko 10 saio	3.500 pta.

ZERBITZU BERRIA

MASAIA	1.200 pta.
--------------	------------

* Bazkide ez denak sarrera ere ordaindu beharko du.

- 2 AGENDA
- 4 INKESTA: Eta zuk, sinesten al duzu politikariengan?
- 6 BERRIAK LABUR
- 8 ZIKULU SALTSA: Billabonako Loatzo Udal irratia *impasse*-an.
Imanol Arratibel eta Ketxus Ugarte.
- 11 HERRIZ HERRI
- 17 ERREPORTAIA: Zizurkilen eta Elkarriren eskutik "Gatazken konponbidez mintzo".
- 20 ELKARRIZKETA: *Obabakoak* itzultzen.
- 22 BASERRIAN: Nekazal ikasketak ezinbestekoak.
- 24 KULTURA: Bi bertsolari zizurkildarrei omena.
- 26 KIROLA: Joxe Angel Sarasola asteasuarra Australian.
- 28 ZAHARRAK BERRI. ERRETRATU ZAHARRA.
- 30 MUSIKA: Andoainen bandaren tradizioa berreskuratzen ari dira.
- 32 BEGI ARGIA
- 33 HEMEROTEKA
- 34 HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
- 35 MERKATU TXIKIA
- 36 ZURE HIZPIDEA
- 37 AIURRITARRAK: Xabier Usabiagarekin Espainiako itzulua.
- 38 ESKOLA ARTEKOA: Andoaingo La Salle-Berrozpe.
- 40 PASADIZUAK



Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Helbidea: Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31

Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal.

Erredakzio Batzordea: Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Jon Unanue.

Erredakzioa: Mainer Barandiaran, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian.

Laguntzaileak: Joxe Eizmendi, Xabier Lasa, Mikel Maiz, Xabin Mujika, Karmele Otaegi, Xabier Usabiaga.

Argazkiak: Manu Mujika, Karmelo Marzol.

Komikia: Iñaki Gonzalo.

Publizitate arduraduna: Xabier Jauregi.

Banaketa arduraduna: Iñosken Mujika.

Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.

Inprimategia: Izarberri, Usurbil.

Filmaketa: VideoCys, Donostia.

Lege-gordailua: SS-202/94

ISSN: 1134-0614

Tirada: 7.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aiurri, 2. zenbakia. Beterri, 1994-5-27

Agenda

ERAKUSKETAK

ANDOAIN:

- **Ekainak 3-12:** San Juan jaiak iragartzeko lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa.

- **Ekainak 17-26:** Zeramika eta Arte Aplikatuetakoko ikasleen lanak.

Lan hauek Urigain Kultur Etxean egongo dira ikusgai.

ZIZURKIL:

- **Ekainak 1-15:** Haurren plastika-ko tailerreko lanak.

Beheko Kultur Etxean egongo dira ikusgai arratsaldean.

IKUSENTZUNEZKOAK

ZIZURKIL:

- **Ekainak 12:** "Artzainak, azken nomadak". Beheko Kultur Etxean eguerdiko 12etan.

Iriarte Kultur Etxean, gaueko 9etan:

- **Ekainak 10:** "Patagonia eta natura". Egilea: Javier Fernández.

- **Ekainak 17:** "Ekialdetik Euskal Herrira". Egilea: Javier de Juanes.

ANTZERKIA

BILLABONA:

- **Ekainak 3:** Markeliñe taldearen "Kubierno" antzezlan.

JAIK

ANDOAIN:

SAN JUANAK

- Ekainak 5:

11.30etan: Herriko dantza taldeak, abesbatzak eta txistulariek antolatuta Euskal Jaialdi txikia.

- Ekainak 23:

22.30etan: San Juan sua Goiko Plazan, bere inguruan Sanjuan zortzikoa dantzatu da. Ondoren txistularien eta Urki dantza taldearen emanaldia.

23.45etan: dantzaldia Goiko plazan Inguma taldearekin.

- Ekainak 24:

12etan: Axeri dantza

17.00etan: herri kirolak.

19.30etan: Sorozabal, Peñagarikano, Loidisaletxe eta Mendiluze bertsoarien bertso saioa La Salle-Berrozpe ikastetxe-ko patioan. Gai-jartzailea: Joxemanuel Oiartzabal.

23etan: pelota jaialdia Arrate frontoian.

- Ekainak 25:

12.00etan: haurren arteko zesta punta eta eskupelota txapelketaren finalak.

15.30etan: I. Open Euskadi jaitziera Belkoaindik Comaq-era.

- Ekainak 26:

18.00etan: haur danborrada

22.00etan: Rock kontzertua Goiko Plazan Karkaxa, Cerdos Compases eta Andoaingo talde baten eskutik.

KIROLA

BILLABONA:

- **Ekainak 16:** Arratsaldean Euskal Bizikleta iristen dela eta, "Carros de fuego" filmea izango da ikusgai gaucan enparantzan.

- **Ekainak 17:** Euskal Bizikleta goizean irtengo da Billabonatik.

- **Maiatzaren 31an** amaituko da Diputazioako Gazteria eta Kirol sailak, Billabonako Udalararekin batera antolatzen duen Uda 94eko ekintzetan parte hartzeko izena emateko epca. Ekainaren 27tik Uztailearen zortzira 11-14 urteko haurrek taldeko kirolak eta txirindularitza lantzeko aukera izango dute. Uztailearen 11tik 22ra taldeko kirolak eta pilota.

ASTEASU:

- **Ekainak 4:** Gipuzkoako Bizikleta Federazioak antolatuta 10-11-12-13 urteko neska-mutilen-tzat lasterketak, arratsaldeko laucetan.

BESTE

BILLABONA:

- **Ekainak 16:** Extremadurako II. jardunaldi kulturalak: erakusketa, hitzaldia eta poesia errezitala Kultur Etxean. Gaucan Akelarre taldearekin dantzaldia enparantzan.

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

PINTXOAK
OGITARTEKOAK
GOSARIAK

ESPEZIALITATEAK:
PERRETIXIKOAK
LABEAN
ETA NAHASKIAK



**MENDI
TABERNA**

KALE BERRIA, 12 | ANDOAIN

LEITZARAN FINKAK

ETXEBIZITZA ETA
LOKALEN SALEROSKETA
ETA ALKILERRARI
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49

ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



HOL - ATZ

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

MUSUTRUK

AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

DEBALDE

hutsean

dohainik

urririk

3. zenbaitik aurrera etxean **DOHAINIK** jaso nahi baduzu, egin zaitez harpide!, etxeraino eramango dizugu eta hilerro **AIURRI** aldizkaria, xentimorik ordaindu gabe.

☛ Izen-emateko txartela ondoko liburudendetan utz dezakezu:

● **ADUNA**

HERRIKO Taberna

● **ANDOAIN**

IKAS-JOLAS Liburudenda
MINIKOST Liburudenda
STOP Liburudenda
ERNAITZA Liburudenda

● **ASTEASU**

OGI ZURI Okindegia
PATXINE Jatetxea

● **BILLABONA**

ROTETA Denda
OGI GOXO Okindegia

● **LARRAUL**

HERRIKO Ostatua

● **ZIZURKIL**

ELBARRENAko Kultur Etxean
(16.00-20.00)
IRIARTE Etxeko Tabernan

☛ Izena telefonoz eman nahi izanez gero, dei ezazu **30 07 32** zenbakira.

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT
HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

Eta zuk, sinesten al duzu

Politikariei buruz herritarrek duten iritzia ezagutu nahi izan dugu kalera irtenda, ur handietan igeri egiten dutenei nahiz ur txikietan dabiltzanei buruz. Batek baino gehiago pentsatuko du, komunikabideetatik etengabe jasotzen ari garen informazioa jasota, asmo okerren batekin ez ote gabiltzan. Ez da hori, hain justu, gure asmoa, egia baino, iritzia jaso nahi ditugu. Galdera egin eta erantzuna berehala jasotzeko arazorik ez dugu izan behintzat, ezagun da beraz, jendeak baduela gaiari buruzko iritzirik.



Joxe Mari Urbietta, garraiolaria. Larraul.

Gaur egun entzuten diren korrupzio kasuekin, ez gehiegi. Batzuegan, euskaldunengan batipat, sinesten dut, baina kanpokoengan... Ni euskalduna naiz, goitik behera, eta boto abertzalea ematen dut. Batzuk oso argiak dira, jatorrak. Nik, Karlos Garaikoetxea adibidez, oso ondo ikusten dut pertsona bezala. Larraulen ez dago alderdirik. Ahalegindu ginen bat osatzen, baina boto hura ematen zutela jakin arren, eskatutakoek ez zuten jende aurrean agertu nahi izan. Bestalde, azken aldiko Udal honekin ni ez nago oso konforme, beti egiten digute jukutriaren bat.



Merche Hernández, etxekoandrea. Asteasu.

Askorekin, gehienekin, ez nago konforme. Ez zait ongi iruditzen nola jokatzeko duten. Toki guztietan bezala onak eta txarrak egongo direla pentsatzen dut, baina gauza bat argi dago: azpijoko eta istilu asko daude eta guztiak ezkututzen dituzte, nola edo hala. Nik diruagatik baino ez daudela pentsatzen dut. Herrietan, aitortu behar dut, orain dela urte batzuekin alderatuz aurrera egin dela, baina ez zait iruditzen beraien artean ere ezberdintasun handirik dagoenik. Nik, bestalde, ez daukat beraiekin inongo traturik.



Eduardo Aizpurua, langilea. Zizurkil.

Ez dut pittin bat ere sinesten. Guri dirua kentzeko eta beraiek aberasteko baino ez daudela politikan uste dut. Egia esan, ez dut politika ulertzen, paso egiten dut. Batzuetan bakarrik ematen dut botoa, ohituraz edo... Handi eta txikien artean ezberdintasunik al dagoen? Ez hainbeste, itsas handiko arrainengan oraindik ere konfidantza gutxiago daukat, baina herrietakoak ere berdintsuak direlakoan nago. Helburu garbia daukate: guri dirua ateratzea.

UBANE

EDARITEGIA - JATETXEA

- Otaratekoak
- Kartara jateko aukera

Etxe Ondo, 6-7 - ☎ 69 34 42
BILLABONA

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALENAGUSIA, 16 - ANDOAIN

ATARRAIA

Edaritegia

**Pintxo hotz
eta beroak**

Kaleberria, 11 - ☎ 59 37 38 ANDOAIN

Patxi Monreal, autonomoa. Billabona.

Ezta batere gainera. Hasieran lan egiten dute eta gauzak "oso argi" esaten dituzte, baina gero, gora iritsitakoan, adio promesak eta lehen bezala jarraitzen du denak. Herrietakoak edota altuxeago dabiltzanak, igual-igual da, botereak guztiak usteltzen ditu. Nik ez diot inori botorik ematen, orain arte ez baitut ikusi inork bere hitza bete duenik. Agindutakoa betetzeko ahalmenik oraindik ez dit inork erakutsi.



Idoia Goikoetxea, tabernaria. Aduna.

Ez, ez ditut oso gogoko. Denak lapur batzuk iruditzen zaizkit, irakurri eta entzuten dudanaren arabera. Orain arte ez dute gauza handirako gai direnik erakutsi. Gauzak oso gaizki daude eta ez dute ezer konpontzen. Egia esan, nik ez dut inoiz horrelako idealik izan, eta politikak ez nau gehiegi kezkatzen. Halere, herri txikietan ikusten da saiatzen direla eta gauzak egiten dituztela, nahiz eta beti ere guztien nahia ezin bete.



Eli Agirre, ikaslea. Andoain.

Ez, orokorrean ez dut sinesten. Asko esaten dute denek, baina gero oso gutxi egiten dute. Herrietan, batzuetan, izaten dira gauza onak egin nahi izaten dituzten alkateak, baina estatu mailan, esate baterako, ezin daiteke sinetsi. Hasieran, beharbada, asmo onak izango dituzte, baina gero bide errezagoetara jotzen dute, diruarena alegia, eta hutsean geratzen dira asmo on guztiak. Nik ez dut batere konfidantzarik beraiengan.



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGEITSARITZA



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TEL: 59 35 49


ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN

HONTZA BIDEO TALDEA BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR

☎ 59 33 05
ANDOAIN


BILLABONA-ZIZURKIL

● Zubiaren auzia konpontzeko bi aukerak

Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura sailak eta zubiaren konpontze lanetarako proiektua egin duten ingeniarien zenbait xehetasun hartu dira kontuan Kultura sailean Udalek aurkeztu behar izan duten alegazioen idatzian. Izan ere, eta Udalek Eusko Jaurlaritzari zubia babesteko agertu duen borondatea aipagarria dela aitortu badiote ere, Jaurlaritzak zubia konpontzeko landu duen proiektuan aipatzen diren zenbait punturekin ez daude oso konforme.

Ibaiaren isurbidea ziurtatuko duen zubiaren taula igoz gero trafiko arazo larriak sortuko direla uste dute. Bestalde, Kultura sailaren idatzian esaten den bezala, arkuak mantentzen badira, ezinezkotzat jotzen da pilak desagertaraztea, eta aldi berean hauek desagertuz gero, gangak mantentzea ez zaie posible iruditzen. “Zubiaren eraikuntzaren logika aldatuta, Zubimusu beste zubi bat bilakatuko da, edota oraingoaren karrikatura bat baino ez da izango”, esaten da adituen txostenean.

Eguno zubiak eragiten dituen uholdeen arazoa konpontzea eta Zubimusu Santio Bideko monumentuen bildumako katalogoan sartzea da proiektu berriarekin uztartu nahi diren bi ideiak, baina antza denez, nahikoa lan zaila ari da bihurtzen. Hona hemen honi buruz E.H.U.ko arkitektoek adierazi dutena: “Bi aukera daude: bata, oraingo zubia berrizatu, hondatutako atalak konpondu, eta behar dituen zuzenketak egitea. Bestea, zuzenketak, zubi zaharraren berriztapenarekin bat ez badatoz, zubi berri bat egitea, zubi moderno bat, egungo beharretara egokitua eta halaber, denboraren poderioz gure herrietako ondasun historikoa bilakatuko dena”.



BILLABONA-AMASA



● BIDEAN hautesle talde berria

Datorren urtean izango diren Udal hauteskundera aurkezteko asmoz sortu da BIDEAN Hautesle Taldea. Eduardo Laborde, egungo Billabonako alkatea eta Jose Ignacio Mujikak aurkeztu zuten taldea, hain zuzen ere azken hau aurkeztu da talde honen zerrenda buru Alkatezarako. Talde berri hau “EE-EuEko militante izan ginen gizon-emakumeok hilabeteetan eman dugun eztabaidaren fruitua da” esan zuen Labordek. Kandidatura independente honen arazoia hauxe zela adierazi zuen: “Lehenengo Udal demokratikoaz geroztik bestelako alderdi politiko guztiengandik bereizituta, udal politika finkatu eta horren alde lanean aritu izan ondoren, gaur ez dugu uste alderdi horiek gu ordezkatzeko gaituztenik eta jarraitzeko nahiko indar badugula pentsatzen dugu, edozein alderdi politikoetik kanpo. Gure taldean kultura politiko desberdineko pertsonak biltzen saiatuko gara, behartsuenenganako solidaritate-tik gure inguruan kultura pakezale eta integratzaileak bultzatuz”. Talde hau gauza dadin 100 hautesleren sinadurak bildu beharko ditu talde eragileak, baina horretarako arazorik ez dutela izango pentsatzen dute.

● Gurutze gorria

Martxoan inaguratu zen Udalaren ekimenez sortutako Gurutze Gorri zerbitzu berria. Udaltxeko arkupeetan dauka egoitza eta hogeita lau ordutako zerbitzua eskaintzen du. Bere lan esparrua Billabona, Zizurkil, Asteasu, Larraul eta Aduna dira, eta jakin dugunez pertsona edadetuek izan dira orain artean zerbitzu honetaz gehien baliatu direnak bertan iraunkor egon ohi den anbulantzia erabiliz. Inork zerbitzu hau erabili beharko balu, honako hau da telefonoa: 69 39 69

INTSUMISIOA GURE HERRIETAN



Mikel Iradi, Iñaki Altuna andoaindarrak, eta Lander Etxeberria billabonatar intsumisoak azken hilabete hauetan auziperatu dituzte soldadutzari uko egin izanagatik, halaber, beste zenbait gazte epaileak deitu zain daude. Iñaki eta Lander ez dira epaitegian aurkeztu, "auziak baitira intsumisioaren aurkako beste errepresio tresnetako bat" dio Landerrek.

Bestalde, Julio Abrego andoaindarra beste hamazapi lagunekin batera, Gipuzkoako lehenengo epaitu eta espetxeratuetako bat da, azaroan auziperatu zuten, hain zuzen ere. Julioren jarrera bestelakoa izan da, berak auzitaratzen zuen, auziak berak gizartean eragina eta islada izan zezan. Epaileak sententzia eman eta gero bere burua eskaini zuen beste intsumiso auziperatu batzuekin batera, oraingo honetan ere helburu berarekin, baina "ez zituzten atxilotu". Apirilaren 21ean eraman zuten Julio lanetik Martutenera. Orain 18 hilabetez, hirugarren graduan espetxe zigorrari egin behar dio aurre, hau da astelehenetik ostegunera espetxera joan behar izaten du lo egitera. Juliok hasieratik nabaritu omen du intsumisioei espetxean ematen zaien "faborezko tratua", "hain zuzen ere, gizartean orohar eta zenbait epailek agertzen ari diren intsumisioaren aldeko jarrera dela eta".

Iñaki eta Lander une honetan Ertzainak auzitara joatera aginduko dien hurrengo deia zain daude. Landerekin bigarrenaren ere ez omen dauka aurkezteko asmorik. Hirugarrenengan espetxeratzeko agindua emango zaio. Halere, espetxeratzeko erabakia epaileak egingo duen legearen interpretazioaren arabera izango da.

Bien bitartean Billabonan Herri Batasunak gazte intsumisioen aurka ematen ari den errepresioa salatzen duen mozioa aurkeztu eta Osoko Bilkurak aho batez onartu du. Hiru gazteek intsumisioa "geldiarazi ezin daitekeen kate bat" dela esan digute, "gure egoera benetan zentzugabea da, aurrerantzean gure mugimendua ezkutatzen saiatzen direnen aurka gure boza entzunarazten ahalegindu behar dugu gure indar guztiarekin" dio Juliok.

GALARDI

UDAL HAURTZAINDEGIA

ESKOLAURREKO HEZKUNTZA

1994/95 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIOA

- Euskaraz
- 3 maila - 3 gela:
 - 1 maila: 0 - 1 urte bitartekoa
15 haur - 2 hezle + 1 eguerdian
 - 2 maila: 1 - 2 urte bitartekoa
18 haur - 2 hezle + 1 eguerdian
 - 3 maila: 2 - 3 urte bitartekoa
20 haur - 2 hezle
- Jangela: adinari egokitutako elikadura programa
- Orduetgia: Goizeko 7,30etatik
Arratsaldeko 17,00etara
- Kuotak: gurasoen diru sarrera gordinen arabera

- Egunak: Ekainak 7tik - 18ra.
- Orduak: goizeko 10etatik - eguerdiko 13etara
- Non: Urigain Kultura Etxeko idazkaritzan.
- Informazioa: Urigain Kultura Etxean
☎ 59 38 99



Andoingo Udala

Zikulu saltsa

-BILLABONA-

“...Loatzo irratia, zure sintonia!!”, halaxe entzun behar zen aspaldi honetan Billabona eta inguruetan irratia-aren diala 107,5 FM frekuentziaren parera ekartzeko. Baina asmoek asmo izaten jarraitzen dute oraindik ere; udal irratia- mutua jarraitzen du, eta haren inguruan sortu diren zailtasun eta ezadostasunek *in-passe*-an daukate proiektua.



8

LOATZO UDAL IRRATIA INPASSEAN

Teknikariaren kontratazioak sortu dituen arazoek geldiarazita daukate proiektua

Aspaldikoa da Loatzo Udal Irratiaren proiektua. Joan den urtarrilean bi urte bete ziren Udal-eko kideek Imanol Arratibel kultura zinegotziaren proposamena aho batez onartu zutenetik. Irratia herriko eta eskualdeko kultur espresio gisa sortu zen, pentsamolde ezberdineko jendea haren inguruan bilduko lukeen proiektu gisa. Horrez gain, herri mailako informazio gertukoak eskaintzeko bitarteko ezin hobea iruditu zitzaion.

Antzeko proiektuak martxan jar-tzea lortu zuten herrietan egon ziren bisitan, eta apurka lan talde bat bildu zen irratian gogo betez aritzeko prest.

Laguntza profesionala

Irratiak ondo funtziona zezan, profesional baten laguntza beharrezkoa ikusi zuten ordea. Billabonako Udale-tik Andoaingo Zine eta Bideo eskolara jo zuten bertan herriko inork ikasketak amaitu zituen jakiteko. Hala jarri ziren

harremanetan Ketxus Ugarterekin. Udal irratia-aren proiektuari buru-bela-rri eusteko asmoa zutela eta, lanean hasi zen Ketxus, Iñaki Galanen laguntzare-kin: beharrezko tresneria erosi, diske-txeekin harremanetan jarri, estudioa bera moldatu...

Guztia emititzen hasteko pronto jarri zutenean, irratia-aren proiektua in-teresez jarraitu zuten lagun taldea bil-du zen inguruan. Taldea osatuta, pro-gramazioa zehaztu zuten azkenik: Ez


zen erronka makala., egunero hiru orduko saioa egiteko prest zeuden. Tertuliak, musika, informatiboak, magazinak... Artean lotuta zituzten xehetasun guztiak.

Joan den urtarrilaren 10ean prestatutako programak emititzen hasteko asmoa zeukaten. Baina horretan zeudela, Herri Batasuna udal taldeak teknikari postua lehiaketa publikora irten zedin eskatu zuen. Gainontze-ko taldeek onartu egin zuten proposamena, batipat Udaletxean ezadostasunak egonez gero, irratia emititzen hasi eta gero izugarriak gerta zitezkeela pentsatuta.

Hiru lagun aurkeztu ziren Euskadi Irratiko profesional batek jarritako azterketara. Kexus bera tartean. Baina hirutetan batek ere ez zuen, antza, eskatutako maila eman.

Hiru lagun aurkeztu eta inork ez zuen frogarik gainditu

Harrez gero, eta oraindik irtenbiderik ikusten ez zaiola, *inpassé*-an dago une hoentan proiektua. Guztiak daude irratia lanean jartzeko prest, baina talde politikoek ez dute oraindik arazoak gainditu eta proiektuari behin-
goz eusteko gaitasunik erakutsi.



Kexus Ugarte

Nekatu egin gara

Urtebete baino gehiago bada Loatzo Udal Irratiaren proiektua martxan jartzera zihola eta deitu zidatenetik. Udaletxetik Andoaingo Zine eta Bideo Eskolarekin jarri ziren harremanetan, eta nire izena eman zieten, ikasketak bukatuta zeuzkan bi-llabonatar bakarra bainintzen. Proiektuaren berri jaso ostean lanari ekin genion. Estudioa emititze-ko moduan prestatzen hasi ginen. Denbora dexente eman genuen horretan, arazo teknikoak ere dexentekoak izan ziren eta.

Baina azkenean jarri genuen emititzen has-
teko data: urtarrilaren 10a. Aurrez kazetari lane-
tan aritu behar zutenekin frogak egin ziren eta zen-
bait saio grabatu. Baina horretan geundela, teknika-
ri postua lehiaketa publikora atera behar zuela ja-
kinarazi ziguten Udaletik.

Hiru lagun aurkeztu ginen lehiaketara, bai-
na inork ez zuen eskatu zitzaigun maila eman. Eta
horretan geratu da gauza. Denbora tarte handitxo
igaro da ordutik, eta proiektuan lanean aritutakoak
nekatu egin gara. Hasi, ilusio handiz hasi ginen,
nik neronek urtebete egin nuen lanean bertatik ete-
kinik jaso gabe. Baina hori ez dute nonbait oso kon-
tuan hartu. Irratian borondatez aritu ziren herrita-
rrek idatzi bat bidali zuten Udalera lan hori kon-
tuan har zedin, baina ez dugu erantzunik jaso. Ez
dakigu proiektua abian noiz jarriko duten, ezta jar-
tzekoa den ere. Eta ordurako litekeena da gutako
asko nekatuta egotea.

Zikulu saltsa



Imanol Arratibel

Herriaren eta eskualdearen espresio bide kultural gisa erabiltzeko nahiari erantzunez sortu zen Loatzo Udal irratia ren proiektua. Giza Informazio Zientzietan lizentziatua eta Kultura batzordeburu den Imanol Arratibelek proposatu zuen egitasmoa. Ekintza hau ez zegoen ezcin alderdi politikoren hauteskundeetako egitarauan.


Herriko zenbait talde eta bizilagunaren laguntzari esker indartu zen egitasmoa. Udalak ondoren aho batez eman zion oniritzia proiektuari. Loatzo Udal irratia ren estatutoetan aurrikusten da kontrol teknikari baten kontratazioa. Gobernu taldeak begi onez ikusi zuen orduan teknikariaren funtzioa, eta orain ere, lan taldeak tekniko baten irizpidearen arabera egin behar duela lan uste du.

Hasiera batean lan hau egin behar zuen pertsonak bere eginkizuna utzi egin zuen, arrazoi pertsonalak zirela medio. Ordezkoa bilatu zen. Andoingo Zine eta Bideo eskolara jo genuen eta Ketxus Ugarte “une horretan ikasketak bukatuta zeuzkan ikasle bakarra zela” esan ziguten. Ondorengo kontratazioa osatu beharko zuen lan egitarauaren baitan zegoela esan zitzaion. Ketxusek baldintza onartu eta lana antolatu, koordinatu eta errealitatean gauzatzeko gai izan zen.

Kultura batzordeburuak, agindutakoa bete egin zela ikusita, kontratazioa proposatu zuen. Herri Batasunak herri mailan lehiaketa publiko bat egitea proposatu zuen. Gobernu taldeak onartu eta hiru lehiakide aurkeztu ziren. Euskadi Irratiaren teknikoaren irizpidea jarraitu zen azterketa egiteko garaian, hau da, frogak orokorrean egin ziren. Herri Batasunak ez zuen irizpide hori onartu. Azterketa egin eta postua hutsik geratu zen. Ketxus izan zen, frogak orokorrean hartuta, eskatutakora gehien hurbildu zena.

Gaitzikortasun eta erretizentziek *in passe*-ra eramán zuten irratia. Gobernu taldea eta oposizioko taldea akordio batera iritsi eta irratian lanean aritutako jendeari elkarte bat osatzeko proposatu zitzaion, era honetan Udalaren dirulaguntza jaso ahal izango zutelarik. Taldeak ez zuen proposamena onartu, bere nahia “antennaratzea” baino ez zela esanez.

Ez da inoiz Udala eta irratian aritu den lan taldearen artean enfrentamendurik izan. Imanol Arratibelek eta irratiko lan taldeko gehienok uste dugu Ketxus Ugarteri urtebete inguruko kontratazioa egin behar zaiola, eta ondoren beste lehiaketa publiko bat egin. Kontratazio honen asmoa esperientzia pilotari behingoz hasiera ematea da, “tirabira politikoak” alde batera utziz, uhinen bitartez irratia herri honen espresio kulturalaren adierazpide izan dadin.



Orain ez denbora asko, udal irratia ren inguruan bildutako pertsona taldeari kultur talde gisa eratu zitezten proposatu zitzaion, modu horretan Udaletxetik bertatik dirulaguntzak jasotzeko aukera izan zezaten. Baina asanbladan bilduta, proposamen hori baztertzera erabaki zuten. Udaletxeak zer egingo zain-zain daude orain.


Eduardo Laborde alkateak esan digenez, Udaletxeko organuetatik kanpo bilera bat egin beharko dute aurki alderdi politikoetako ordezkari eta irratia ren inguruan bildutako pertsonekin. Eztabaidan jarri eta irtenbideren bat bilatu, hori hartu dute gertuko helburutzat, “ia bi milioiko inbertsioa egin ondoren ezin baitugu eskuak gurutzatuta ditugula jarraitu”.

Jone Larrañaga



Sasoi ederra daukate emakumeek

Herriko emakumeek zerbait egin behar zutela, eta asmo horrekin, elkartu, eta gimnasia ikastaro bat antolatzea bururatu zitzairen, Adunan antolatu den lehenengoa. Bururatu eta antolatu, Udaleko asistentarekin harremanetan jarri eta Zizurkilera jo zuten irakasle bila. Gorka Ipintza aurkitu zuten bertan. Urtarrilean hasi ziren eta ekaina bitartean jo ta fuego aritzeko asmoa daukate. Jakinarazi digutenez beste emakumerik animatuko balitz, taldea irekia da, eta “beraien parean jartzeko alde z aurretik pixka bat entrenatu beharko balu ere”, txokoren bat egiteko prest omen daude.



Atsedetik hartu gabe aritzen dira

Hamabost emakumek, batzuk gazteak, beste batzuk ez hainbeste, osatzen dute taldea. Herri Eskolako gimnasioan egiten dute kirola, beren seme-alabek egiten duten toki berean. Gela txiki samarra iruditzen zaiela ere esan digute. Udaberria hasita, kanpoan aritzeko giro txarrik ez omen du egiten, baina oraindik ere ez dakigu ez ote dauden lotsatu samarrak.

Hasieran bi egunetan entrenatzen zuten, astelehen eta ostegunetan. Baina astelehenetan izan

ohi zituzten agujetek konturazari omen zieten ez er egin gabe egun gehiegitxo egoten zirela, eta ostiraletan ere entrenatu beharra zeukautela. Gaur egun apenas daukate agujetarik.

Ordubetez aritzen dira arratsaldetan, “hirurogei minutu gelditu gabe” zehaztu digute. Nonbait, Gorkak ez die deskantsurako denbora askorik ematen. Denetik egiten dute, “gorputzeko atal guztiak lantzen saiatzen gara” dio Gorkak. Batzutan,

isiltasuna gehiegizkoa denean, musikak lagunduta egiten dituzte ariketak eta gaur egun, diferentzi handia nabaritzen omen dute: “hasieran nabikoa lan izaten genuen gerria bihurritu eta lurrera eskuakin iristeko”. Azkenengo aldiz eskolan egin omen zuten kirola.

Egunero egiten dituzte ariketa ezberdinak, “beraz, klasera etortzea erronka txiki bat ere bada. Ez dago aspertzeko modurik”.

Gizonik ez

Taldean, irakaslea salbu, ez dago gizonik. Eta taldean onartu aurretik eztabaidatu egingo luketela iruditzen zaigu. Izan ere, ekimena emakumeena izan da. Badirudi gainera, emakume hauek herrian beste zenbait gauza antolatzen gogoarekin ere badabilzala. Horrelako herri txiki batean zenbait ekintzen falta somatzen dutela ematen du.

Dena den, eta ezertan hasi baino lehen, hurrengo ikasturtea hortxe dagoela ere badakite, eta irailean berriro ere gimnasia egiten hasi behar dutela konbentzita daude. Orain arteko esfortzua ez dadila hutsean geratu.

Joxe Mari ITURRALDE
ZURGINDEGIA
Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.
ADUNA - ☎ 69 20 81

Lanbroa
Taberna
Parrandarako giro aproposa!!
Pio Baroja,1 - ANDOAIN

GAROA
auto eskola
ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
20140 - ANDOAIN



Herriz herri

Gas naturala laster etxeetan

Andoain

Andoaingo auzoetako etxe asko gas naturalaz hornituko dira laster. Natur Gas enpresako iturriek jakinarazi digutenez, gasaren hornidura urte amaierarako abian egotea da helburua, eta horrenbestez, udazkenean hasiko dira gasaren instalazioa egiteko beharrezkoak diren lanak.

Halere, gas naturalaz baliatzeko aukera ez dute herritar guztiak izango.

Lehen urratsean herriko auzo batzuetan soilik egingo baita instalazioa. Honetan datza instalazio lana: gasaren hornidura sarea lurrazpian jarriko da eta sare honekin lotura egingo duten hodi mehe batzuk kokatuko dira eraikuntzen fatxadetan. Azken hauek ahalbidetuko dute gasa solairu guztietara iristea. Instalazio hori eraikuntzen kanpoaldetik egiten da, baina hoditeriak jarraipena izan behar du etxebizitzaren barrualdean eta beraz, sukaldeko aparailuetaraino ezarriko dira hodiak.

Instalazioaren prezioa gasaren hornidura eskatu duten bizilagunen kopuruaren arabera da. Hain zu-

zen, gasa etxean jaso nahi duten bizilagunak eraikuntza horretako guztiak edo hiru laurdenak badira, 137.023 pezeta, %15eko BEZarekin, ordaindu beharko dute bai fatxadako bai etxebizitza barruko instalazioengatik. Eskatera egin dutenak gutxiago badira, ordea, garestiagoa izango da prezioa. Dena den, hodiak begi bistan gera-tzen dira eta horiek altzarrietan nahiz hormetan ezkutatu nahi dituenak 7.900 pezeta, BEZaz gain, gehiago ordaindu beharko du.

Hileko ordaindu beharrekoa

Gasa neurritz kontsumitzen duenak, hau da, sukalderako eta ura berotzeko erabiltzen bada, batz bestea 2.164 pezeta ordainduko du hilero, eta berogailurako ere erabiltzen duenak, aldiz, 4.614 pezeta. Kontsumitutako gasa zenbatekoa den jakiteko kontadorea beharko da. Kontadore bat ipiniko da etxebizitza guztietan eta hau erosi nahiz alokatu egin daiteke. Erosiz gero 16.637 pezeta ordaindu behar da, eta alokatzearen prezioa 171 pezetakoa da hileko. Azkenik, gasaz hornitzen hastean 20.685 pezeta, BEZaz gain, gehiago ordaindu beharko da.

Agurtzane Ormaetxea

Lehenengo lanak

Aiztondo 2-20 (bikoitiak)
 Gurmendi 1,2,3,4,6,8
 Karrika 2,4,6,8
 Larramendi 2,4,6,8,12,14,20,22
 Zumea 12, 14,16,18,28,30,32
 Leizaran 4,6,8,10
 Ankoras 3,4,5,6,8,10,12
 Belabi 1,3,5
 KaleBerria 7,9,10,11,12,14,16, 20, 20 bis, 22-50 (bikoitiak)
 Juan Bautista Erro 1,2,4,5,6,7,8,9
 Kale Nagusia 1,2,3,5,6,7,8,9
 Agustin Leitza 1,3,4,5,6,7,9,11, 13,21,23,25,27
 Agustin Leitza atzealdea 12,14
 Agustin Leitza Plaza 1-3
 Zuberoa 2,4,6,8
 Doktor Huizi 14-24 (bikoitiak)
 Goiko Plaza 1-8
 Pio Baroja 1,3,5
 Arrate Plaza 1-10
 Nafarroa Plaza 1-5
 Arteta 1,3
 Rikardo Arregi 1,2,3,5,6,8,10,12, 13, 14,15,16,19,20,21
 Mimendi 2,4,6,8,10,12, 14,16,18, 20,22,24,26
 Bazkardo Plaza 1-12




Gas eta Berogailu Instalakuntzak
Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa


ZURE NEURRIKO AURREKONTUA
EGINGO DIZUGU

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:

DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05

IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64





Gipuzkoako itzulia mendirik mendi

Asteasuar askok ikusita izango dute honez gero "Gipuzkoako itzulia" izenburupean ostiral batzuetan kale eta tabernetan azaltzen diren txartelak. Mendi-irteera noiz eta nora izango den esaten da bertan, baita zenbaiteko iraupena izango duen ere, eta gainera, ibilaldiaren gorabeherak, aldapak eta bestelako oharak adierazten dira grafikoki malda handiek inor ezustean har ez dezaten. Otsailaz geroztik ari dira itzulia egiten hogeita hamarren bat lagun. Zazpi etapa egin dituzte dagoeneko eta sei falta zaizkie oraindik. Igandeetan "zerbait diferentea egin" nahi izanagatik hasi ziren.

Liburu bati jarraituz ari dira bidea egiten. Hemendik aurrera hilero irtetzeko asmoa daukate, hamahiru etapa guztira. Gailurretara iristeko jarraitzen ari diren bidea ez omen da oso zuzena, beraien esanetan, baina horrek badu bere arrazoa, izan ere, liburuko bideak Gipuzkoako mugak ezagutzeko daude eginda.

Kuadrila bat osatu dute dagoeneko

Hirurogei urte dauzka taldeko zaharrenak, eta hamahiru berriz, gazteenak. Bestalde, emakumeak dira gehiengo igandetako koadrila honetan, izan ere "Asteasuko gazteak, gaur egun kuadrila handi bat bezala gara, herriko zaharrak ibiltzen ez diren bezala ibiltzen gara gu, ideia politikoak bereiztu gabe" diote.



Behin baino gehiagotan izan dute eguraldi txarra

Hamarren bat lagun abiatu ziren hasierakoetan, gaur egun normalean hogeita hamarren bat biltzen dira.

Irteeraldi hauek ez omen daukate aparteko zailtasunik. Irteerak antolatzeaz arduratzen direnak beren eginkizuna ondo baino hobeto betetzen dutela ere esan beharra dago: garraioa, mapak, grafikoa, iparrratza, bi argazki-kamara ofizial eta pasadizuak eta bideko gorabeherak jasotzen direnoko egutegia.

Goizeko zazpitan irten ohi dira, "larunbatetan goizago erretiratu behar izaten dugu horregatik" gaineratzen dute. Halere, nonbait, honck badu bere konpentsazioa: kirola egitea, mendiak, herriak, makina bat bide ezagutzea, eta batez ere, igandetean giroz aldatzea. Esan digutenez mendirako zaletasuna ari da poliki-poliki gazteengan sortzen, orain arte mendirako joera batez ere edadetuek baitzuekaten.

Igande pasa

"Goi mailako txomingeroak" horrela definitu du kuadrila hau Joxeanek. Beren irteeraldictan txakolin zahatoz lagundutako hamaiketakoa barkatzen ez duten mendizale hauek despiste txikiren bat baino ez omen dute orain arte izan, "beno, esan beharra dago, behin, bizitza arriskuan ere jarri genuela aldapa bat igo nahi ez izateagatik Deba aldean tunel batean sartuz".

Uda alderako itzulia bukatzeko asmoa daukate. Unc honetan, eguraldi ona ikusita, asteburuko irteera bat ari dira prestatzen Urbia aldera. Udan Pirineoetara joan daitezkeela ere bururatu zaie eta hurrengo urtean berriz, Oriarroari itzulia egingo ote duten ari dira pentsatzen. Dena den, horren aurretik, igandeetan eginiko diapositibekin proiektio bat egingo dutela agindu digute.

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARIITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



**LIZARRA
GARBITOKIA**

LANEKO JANTZIETAN
ESPEZIALIZATUAK

7. Poligonoa, 8. Pabeloia - ADUNA ☎ Garbitokia 69 31 27
109. Posta Kuxatila - ANDOAIN ☎ Etxekoa 59 06 32



**ALOTZ
IZOZKINAK**


KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



Herriz herri

Ingurugiroari buruzko ikastaroa

Billabona-Amasa



Erniora egindako ibilaldia

Jakin badakigu gaur egun lanpostu bat lortzea ez dela gauza samurra. Halere, eta egin den gutzia gutxi dela ikusirik, ingurunearekin zerikusia duen ekimen berri bat bultzatu du Billabonako Udalak.

“Ingurunearen Lanbide Etxea”, izen honekin ezagutzen da aipaturiko ekimena, INEM eta Udalak duten “Lanbide Etxe eta Tailer Eskola” egitarauaren barruan kokatzen dena hain zuzen. Urtebete iraun duen ikastaro honen bitartez Billabonan eta inguruan dauden gazte

langabetuei, heziketa eta prestaketa profesionala eman nahi izan zaie, beti ere ingurugiro hezkuntza eta naturaren babes eta berriztapenarekin loturiko lanetan.

Ekimen hau orain gutxi arte, “biberoaren” esperientzia izan denaren ildo berekoa da. Lanbide etxeetan ohi denez, ikasleek lehen sei hilabetetan ikasketa beka bat izaten dute eta azkenengo seietan ordurako kontratua, era honetan ikasketak eta lana tartekatzen direlarik. Dirula-

guntza hauek direla eta, ikasleek haserre daudela adierazi dute, INEM-ek, orain arte behintzat, ez baitu beken berri eman. Dena den, Eduardo Laborde alkateak adierazi digunez INEMetik esan zaio ikasleek gutxi barru jaso ahal izango dutela dirua. INEMek berak, ikasleak kezkatzen hasiak zirela ikusita, Udalarari eskatu zion ikasle bakoitzeko 20.000 pezeta aurreratzeko. Udala prest agertu bazen ere, egun batetik bestera INEMek eskaria erretiratu zuen dirua berehalakoan iritsiko delako ziurtasunez.

Bi tailer

Lanbide Etxea bi tailerretan dago banatuta: bate-tik, oihar-tailerra eta bestetik, ingurugiro hezkuntzarako tailerra, orotara hogeita bi ikasle daudelarik. Ikastaroaren helburuetako bat Amasamendiko landaretzaren berriztapzea da. Gainera, ingurunearen ezagutza eta sentsibilizazioa helburu duten ekintzak ere antolatu nahi dituzte.

Helburu hauek lortzeko Billabona eta inguruetan hainbat ekintza egiteko asmoa daukate. Gutxi batzuk dagoeneko burutzen hasiak dira, jaien aurretik Iratin antolatutako udako kanpaldia, esaterako. Urtean zehar ere beste hainbat aurrera eramateko asmoa dute: bertako espezieen oihaneztapena, hitzaldiak, tailer ezberdinak, erakusketak, aldizkari bat, inguruetan ibilaldiak eta abar. Bukatzeko, informazio telefono bat jartzeko asmoa ere agertu dute Lanbide Etxeko irakasleek. Ingurugiroari buruzko gai ezberdinei buruzko informazio orokorra emango da bertan.

Inork ikastaro edota eskolari buruzko informaziorik nahiko balu Arratzainen dagoen Fleming eskolara jo dezake edota telefono honetara deitu: 69 37 33.

Agosti Garmendia



BRONTE

**ZENTRU OPTIKOA
BILLABONAN**

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK
Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
TOLOSA-DONOSTIA


EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalca, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA



AUTOBUSAK, S.M.


KALITATEA ETA SEGURTASUNA ZURE ZERBITZURA!!

**ANDOAIN
GIPUZKOA**

Sorabilla Auzoa, 53. Pol.

☎ (943) 59-38-05

Fax(943) 30-01-06



Konponketa lanak hilerrian

LARRAULGO

Udalaren aspaldiko nahia izan da kanposantua berritzea edota, zenbait konponketa-lanak eginez, behintzat, zerbitzu hobea eskaintzea. Ura, argia eta aparkaleku egokiaren falta dira, ziur aski, gabezia han-

“Ez dago urik, ezta argirik ere” kontatu digu Antton Amunarriz Alkateak “normalean, gainera, hiletak arratsaldean izaten dira eta kanposantura iristerako ilun dago. Lanak linternaz lagunduta egin behar izaten ditugu orduan”. Honez gain inguruan ez dago kotxeak aparkatzeko nahikoa leku eta hileta jendetsuetan denak pilatu egiten dira.

Egungo kapera traste eta erremintaz beteta dago, nonbait. Lan hauek egin eta gero, alde batetik, biltegia izatea espero dute, eta bestetik, kapera. Teilatua ere nahikoa egoera txarrean dago, hau ere konpontzeko asmoa

dienak, hala ere, konpondu beharreko beste gauza batzuk ere badaude. Udalak 6.600.000 pezetako aurrekontua onartu du konponketa lanei ekiteko.

daukate. Bukatzeko, zenbait larrauldarren sugerentzia izan da orain hilerria inguratzen duen sare-hesia kendu eta hormaren bat eraikitzea. Daudenak ere txuritu beharrean daudela iruditzen zaie. Azken finean, eta laburbilduz, zerbitzu hobea eskaini nahi die Udalak larrauldarrei.

Larraulgo hilerria txikia da, 20-30 lurperatu baino ez daude. Orain dela hiru urte jarri zituzten nitxoak, baina bost baino ez daude beteta. Bost panteoi ere badaude, gainerakoak lurrean daude chortzita.

Argazki erakusketa bikaina

Argazki zaharren erakusketa soilik izan behar zuena, argazki erakusketa bilakatu zen, izan ere larrauldarrek borondate ona azaldu zuten eta era guztietako argazkiak eskaini zituzten erakusketa osatzeko. Guztira, hirurehun argazki inguru biltzea lortu zuten, zahar eta berri, gehienak zuri-beltzean, koloretakoak ere izan arren. Argazki guztiek erakusten zuten Larraulgo txokoren bat, paisaia bat, desagertutako edota eraldatutako leku eta tokiren bat. Halaber, aiton-amonen erretratu asko eta familia arteko argazki ugari zeuden. Bildu dituztenen artean argazki zaharrenak joan den mende bukaerakoak izan dira

Larrauldarrek oso harrera ona egin diote erakusketari eta Udalak ere



Jendea jakinminenez hurbildu zen erakusketara


ezuste atsegina izan du zenbait argazki ikusita. Horregatik, hainbat argazki, herriko oroitgarri gisa, kopiak egin eta gero gorde egingo

dituzte. Aipatzekoa da argazkiak biltzen aritu diren zortzi gazteren lana, izan ere, beraiek arduratu dira etxe askotara joan, eta argazkiak biltzeaz.

Ikatza
Taberna
 GIRORIK JATORRENA !!
 Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

HERRI OSTAPUA
 TABERNA
 JATETXEA
 LARRAULGO PLAZA
 ☎ 69 18 55

ASTIGARRAGA
 Bainu gelak Linterneria
 Kristaldegia Berogailuak
 ERAKUSKETA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61
 ANDOAIN



Herriz herri

Jai batzordearen deialdia

ZIZURKIL

Nahiz eta herriko jaiak oraindik urrun samar egon, antolakuntza lanetan hasteko garaia iritsi da jada. Iazko jaien balorazioa egin asmoz bildu da jai batzordea. Oraindik, makina bat gauza zintzilik eta lotzeke omen daude. Beraz, lehenengo bilera maiatzaren 23an egin zen arren, batzordeak ekainean ere biltzen jarraitzeko asmoa dauka. Hasieran astean behin bilduko bada ere, garrantziz-



Gizonetan gogorrenak eta emakumeetan xarmantenak

koak diren ekitaldiak lotu ondoren, hamabostean behin bakarrik bilduko da batzordea. Beraz, deialdia zabalik dago bertan parte hartu nahi duten guztientzat, hala nola, zahar, gazte eta hain gazte ez direnentzat ere zabalik daude atak.

Jai batzordeak ohartarazi digu aurten ere jaietako egitarauan azalaren lehiaketa burutuko dela. Beraz, marrazki-lari iaioa izanez gero, anima zaitez zeure marrazkietariko bat lehiaketan aurkeztzen. Honako hauek dituzu lehiaketan parte hartzeko bete behar dituzun baldintzak: gaia, Zizurkilgo jaiari lotuta egongo da; Din A4 neurriko orrialdean aurkeztu beharko da lana; testu hau erantsi beharko zaio marrazkiari: "Zizurkilgo jaiak 1.994, irailak 7,8,9,10 eta 11"; lanak aurkezteko epea uztailearen 11n, astelehenean, amaituko da; Kultur Etxera eraman edota bidali behar dira. Izenpetzeko unean izenorde bat erabili eta beste orritxo batean egilearen datuak idatzi.

Irabazleek honako sari hauek jasoko dituzte: lehenengoak 15.000 pezetako saria izango du, bigarrenak 10.000 pezetakoa eta hirugarrenak, 5.000koa.

Maidar Barandiaran

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



ZENTROA

☎ 69 04 47
ZIZURKIL

JATETXEA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:
ARRAI ERREAK
EUSKAL SUKALDARITZA
HERRIKOIA
EGUNEROKO BAZKARIAK
Ostegun arratsaldean itxita, bazkariak eman ostean.



ZUBi
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

-ZIZURKIL-

Gatazken konponbidez mintzo

ELKARRIko tailer lokalak antolatutako jardunaldiak



Jonan Fernández, Elkarri

Talde honek bitartekari kolektibo bezala definitzen du bere burua eta bere proposamenak hiru oinarri ditu: elkarrizketa, akordioa eta kontsulta soziala. Euren ustez egun gizartea polarizatuta dago, hau da egungo egoeraz egiten duten analisia. Euskal Herriaren autodeterminazio eskubideari dagokionean, eskubide hori aitortzen diote. Bizitzako eskubidea beste guztien gainetik jarri behar al den galdetu izan zaionean, abiapuntua izanik, eskubideen artean mailaketarik egitea ez dela komeni erantzun izan du Fernándezek.



Julen Zelarain, Amnistiaren aldeko Batzordea


Taldearen helburua presoan amnistia eta errefuxiatuen etxeratzea da, preso eta errefuxiatuak egoteko dauden arrazoiak gaindituz. Gobernua, beraien ustez, errepresioaren bidea besterik ez da erabiltzen ari gatazka gainditzeko eta ondorioz, giza eskubideak bortxatzen ditu. Gatazkaren konponbidea autodeterminazioaren eskubidearen errespetotik letorke eta, beren esanetan, bizitzeko eskubideari zentzua beste eskubideek ematen diote.

Mikel Ubillos, Gernika Gogoratuz

Gatazka politikoa ikuspegi zientifikotik saiatzzen da aztertzen. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren dirulaguntzaz egiten du lan. "Konfidantzaren triangela" sortzea da beraien asmoa: "Bik ez dute elkarrekiko konfidantza, baina biek norbaitengan dute konfidantza. Ondorioz, bien arteko harremanak hobetzen saiatzen da elkar ulertu eta arazoa gainditzeko".



Gatazken konponbidez mintzatzea, horixe izan da hain zuzen, Zizurkilgo ELKARRI tailerrak apirilak 26tik 28ra bitartean bertako Kultur Etxean antolatutako jardunaldien bitartez lortu nahi izan duena.



Josu Perales andoaindarra

Jardunaldiei hasiera Josu Perales andoaindar idazleak eman zien. Rebeca Palacios, El Salvadorreko FMLN-ko komandanteak Tolosako Elkarriren Forumean emandako hitzaldiaren bideoa proiektatu ondoren, Josu Peralesek nazioarteko hainbat herrialdetan gatazkak nola konpondu diren aztertzeari ekin zion. El Salvador, Irlanda, Hegoafrika eta Israel-OLP hartu zituen adibidetzat. Euskal Herrian bakea aurkitzeko itxaropena sortu duten gatazka armatuok elkarrizketa bidez nola bideratu diren azaldu zuen. "Jakina", zioen Peralesek, "konfliktoak konpontzeko manualik ez dago. Kasu guztiak dira ezberdinak, baina aurki daitezke, besterik ez bada ere, erreferente txikiak". Eta horretan saiatu zen, alegia, Euskal Herriak herrialde hauetako bakoitzarekin dituen antzekotasun eta ezberdintasunak zeintzuk diren azaltzen.

Elkarrizketa eta akordioa dira bide bakarrak

Nazioarteko gatazka hauei errepaso egin eta gero, ondorio honetara heldu zen Josu Perales: gatazka konpontzeko bide bakarra elkarrizketa eta akordioa direla, ez dago, bere iritziz, arazoa konpontzeko beste modurik.

Honetarako, bere ustez, derri gorrez bete beharreko baldintza batzuk daude: irtenbide negoziatua lortu behar da eta horretarako arriskatu beharra daukate bai ETAk, baita Gobernu Zentralak eta Ajuria Eneako mahaiak ere; lider aproposak eduki behar ditu bai alde batek bai besteak; ezinbestekotzat jo zuen arbitraje lanak egingo lituzketen bitartekari aproposak aurkitzea; elkarrizketa, isilean egin beharko litzateke, honela, bere iritziz, soberan leudeke komunikabideak, prozesuaren bilakaera oztopa bailezakete nolabait ere; gizarte mugimenduen garrantzia azpimarratu zuen. Hauen betebeharra alde bateko zcin bestekoen akatsak publikoki salatzea izaten jarraitu beharko lukeela esan zuen.

Honez gain, behin eta berriz gogorarazi zuen elkarrizketa prozesua

martxan jartzea ez dela batere gauza erraza eta borondatea dela funtsean behar dena.

Euskal Herriko bake mugimenduak

Euskal Herriko bake mugimenduen artean mahaingurua edo eztabaida sortzea zen jardunaldion bigarren egunerako prestaturik zegoen ekintza. Tamalez ordea, ez zen antolatzaileek nahi bezain ondo irten, Herria 2000 Eliza, Gesto por la Paz eta Bakea Orain mugimenduetako ordezkariak ez baiziren mahaingurura azaldu.

Herria 2000, Gesto por la Paz eta Bakea Orain falta izan ziren

Antolatzaileek hori zela-eta, beraien haserrea agertu ondoren, hasi zen mahaingurua. Bakeaz bakoitzak zer ulertzen zuen eta aurrerantzean zein estrategia erabil zitezkeen izan ziren eztabaidagaiak. Hizlariak honako hauek izan ziren: Julen Zelarain, Amnistiaren aldeko Batzordeko ordezkari; Mikel Ubillos, Gernika Gogoratuz-eko kidea; eta Jonan Fernández, Elkarriko ordezkaria.

Euskal Herriko gatazka konpontzeko aukeratu beharreko bideari buruz, gizarte mailan bake mugimenduek duten funtzioari buruz eta mugimendu hauek elkarrekin egin duten bideari buruz aritu ziren besteak beste.

Herriko talde politikoak

Herriko alderdi ezberdinetako zingotzien arteko mahainguruarekin amaitu ziren "Gatazken konponbidez mintzo" izenburupean Zizurkilgo Elkarriko tailerrak antolatutako jardunaldiak.



Joxin Azkue moderatzaile



Mikel Arrastoa alkatea (HB)



Juanjo Aranburu (EAJ-PNV)

Legealdi honetan aurrekoan baino arintasun handiagoaz egiten da lan

Udal ordezkari guztiak etorri ziren bat Zizurkilgo Udalan gaur egun aurreko legealdietan baino erraztasun handiagoz lan egiten dela esatean. Beraien esanetan, ikuspuntu ezberdinak izan arren, elkar lanean aritzeko gai izan beharra dago eta beraiek horretan saiatu direla aitortu zuten, nahiz, noski, ikuspuntu ezberdinak eduki euskal gizartea banatzen duten arazoan aurrean. Kezkati agertu ziren ordea, beraien arteko lankidetzaren horrek ez duelako isladarik izan herritarrengan, hau da, Udalan gertatzen dena ez omen da herrian gertatzen, izan ere, beraien ustea da herria, iritzi politikoak eta ideologiak direla medio, erabat bereiztuta dagoela. Pentsatzen da, beraz, elkarrizketaren bidea herrian bertan hartu behar dela.

Egoera horri irtenbidea ematea zaila bada ere, bat etorri ziren denak herrian Udalan nagusitzen ari den giroa sortu behar zela esatean. Hori aurrera nola eraman ordea? Honelako

galdera bat baino gehiago erantzunik gabe geratu bazen ere, oso interesgarria bihurtu zuten mahaingurua Zizurkilgo alderdi guztietako Udal ordezkariak.

Herria erabat zatikatuta dago, Udala bera baino gehiago



Joxe Larrañaga (EA)



Eusebio Badillo (PSE-EE)

Zizurkilgo Elkarrri tailerra pozik agertu da hiru egunetako jardunaldi hauen ondoren. Izan ere, Elkarririk uste du elkarrizketa dela bide nagusia gatazka konpontzeko eta bide horretan lehendabiziko urratsak behintzat eman dituzte Zizurkilgoan, eta aurrerantzean ere eztabaida, informazioa eta elkarrizketari bide ematen jarraitzeko asmoa dutela agertu dute.

Idoia San Sebastian

-ASTEASU-

Obabakoak itzultzen

Albania eta Finlandiatik Asteasura Obabaren bila

Mira Mexsi eta Tarja Roinila Albania eta Finlandiatik iritsi dira Asteasura helburu amankomun batekin: Bernardo Atxagaren Obabakoak itzul-tzea. Mira emakume bizia, odolberoa eta suharra da, mediterraniar herrialdeetako izaera berekoa, ziur aski. Tarja, lasaia eta pentsakorra da, hausnarketara, beharbada, gehiago emana, "mila lakuen lurraldea" deitu izan den herrialde ipartarretik etorria. Idazle asteasuarraren jaiote-txean eman dute hilabetea, itzulpengintzan buru-belarri murgilduta. Elkarrizketa hau egiteko unean biak beren ekipaia ari zirenprestatzen, Mirak, mineriak jota, ezinbestean itzuli egin behar zuela aitortu zigun, barne bulkada bati erantzun behar balio bezala. Tarjak, pentsatutako hilabetea bete ondoren, bere herrira itzultzeko garaia iritsia zela iruditzen zitzaion.



Mira eta Tarja

A- Beharrezkoa al zen itzulpena egiteko Asteasura etortzea?

M- Asteasu ezagutzea oso garrantzitsua izan da, Bernardo bera gertu edukitzea inportantea izan den bezala. Halere, une honetan alde egiteko beharra sentitzen dut, Obabatik; Benardotik, liburitik hurbilegi nago orain, distantzia ipini behar dut tartean. Obabakoen izpiritua barneratu dut, neurea da dagoeneko, orain joan naiteke.

T- Ezinbestekoa ez da..., baina ongi pentsatuz gero, inportantea izan da parajea ezagutzea, hitz egokiagoak aurki ditzaket paisaia honetan murgilduta. Baina, halere, Obabakoak ez da liburu erregionala, edota erregionala izaki, unibertsala da, eta ez da hain zaila mamiaz jabetzea.

A- Zer aurkitu duzue Obabakoan?

M- Nik hasieratik sentitu dut liburua oso hurbileko. Benetan ederra iruditu zait..., eta exotikoa. *Behi euskaldun baten memoriak* itzuli dut hau baino lehen, beraz, bere idazkera ezaguna zait.

T- Duela urte t'erdi ezagutu nuen

Obabakoak eta bere trinkotasunak, bere egitura osatuak erakarri ninduen. Erregistro, estilo eta tradizio ezberdinak ongi nahastea lortu du, konbinaketa bikaina eginez. Aintzinako tradizioaren eragina nabaria da, baina aldi berean oso nobela modernoa da.

A- Zer uste duzue aurkituko dutela zuen herrialdeetako irakurleek liburuan?

M- Albania bera, eta gure poeta handia den Ismael Kadaré-rekiko hurbiltasun handia.

T- Finlandiarrei narrazioaren tonua ezaguna egingo zaie, urruma egiten duen tonu hori. Aintzinako erroak ditu liburuak hein batean, eta hor nonbait, elkar topo egin dezakegu euskaldunek eta finlandiarrek.

Tarja itzulpena amaitzen ari da ia. Bigarren ataletik hasi da itzultzen, azkenaldea gustatu baitzaio gehien. Urria da bere argitaletxeak itzulpena amaitzeko eman dion epca. Mirak, hasiera batean liburu osoa itzultzeko asmoa baldin bazuen ere, ipuin batzuk

itzuli eta bilduma bat egingo duela pentsatzen du, urte bukaeran argitaratu ahal izateko. Hala ere, *Obabakoak* osorik itzultzea merezi duela uste du.

Biak esku artean *Gizona bere bakardadean* zutela aurkitu ditugu.

A- Zer iruditu zaizue bere azken lana?

M- Oso liburu ezberdina da, dudarik gabe. Estiloz aldatu du. Egia esan, ezuste handia hartu dut, Bernardo berari komentatu diot. Hasieran ez zitzaidan *Obabakoak* idatzi zuen pertsona bera iruditu.

T- Bukatu berria dut liburua eta neri ere hasieran estilo aldatetak ezustean harrapatu nau. *Obabakoak* epealdi baten amaiera zela esan zidan behin Bernardok, eta beharbada, hau aldi berri baten hasiera izango da...

A- Zuek, noski, erdara erabili duzu abiapuntutzat itzulpena egiteko. Zerbait galduko ote zenuenaren beldur ez al zarete, itzupen batetik abiatuta?

M- Egia esan, ez dut gai honi buruz gehiegi pentsatu. Bernardok berak itzuli edo... idatzi duela daukat buruan, beraz niretzat jatorrizkoa izango balitz bezala da.

Gainera, Bernardo hain gertu izateak, izan genitzakeen zalantza eta kezka guztiak ezabatzeko balio izan digu.

T- Kontu egizu gure itzulpena ere ezberdina izango dela. Idatzi guztiak dira itzulgarriak, ideia horretatik abiatu behar dugu. Azkenean, itzulpenak bizitza propioa du, eta hori berehala nabaritzen da.

Bata bestearen herrialdeari buruz genuen ezezagutza elkarrizketa aitortu ondoren, euren herrietan Euskal Herriaz galdetu diegu.

M-Albanian cuskaldunak begikotasunez ikusten dituzte. Kosovon izaten ari diren hizkuntza

eta nazioaren aldeko aldarrikapen eta borrokarekin parekatzen dute Euskal Herria. Bestalde, literatura bat ere badagoela badakite Maria Asun Landaren gazteentzako ipuinen itzulpenei esker.



Bernardoren etxean aritu dira lanean

T- Bi ideia etortzen zaizkie finlandiarrei burura Euskal Herria aipatutakoan: alde batetik, gure bi hizkuntzen artean egon bide den ahaidetasunari dagokio. Garai batean, euskara eta suomiera Europan bi irla bezala zirela esan izan zen, izan ere, gure hizkuntza, zuena bezala, deklinabide eta atzizkiz dago osatuta. Gaur egun horrelako teoriarik ez dira aintzat hartzen. ETA da beste erreferentzia.

Albaniera, suomiera eta euskara hizkuntza gutxiengotuak izanik, egun bizi duten egoera ezberdinaz hitz egin dugu. Izan ere, ez bata ez besteak ez

dute izan euskarak izan duen galtze prozesua eta ez suomiera ez albaniera ez dira hizkuntza gutxiengotuak beraien herrialdean bertan, euskara den bezala.

A- Nola eragiten du egoera horrek itzulpegin?

M- Oso egoera ezberdinak dira, izan ere albanieratik zuzenean itzultzen da, kanpora jotzeko ez dugu beste hizkuntza bitartekariren beharrik, une honetan zuei erdararekin gertatzen ez zaizuen bezala.

T- Guretzat garrantzitsua izan da, gainera, hona etortzea, erdaratik itzultzen egonagatik, *Obabakoak* sortua izan zeneko hizkuntza horretara hurbiltzeko. Aldez aurretik geneukan diferentziaren azaleko kontzientzia areagotzeko balio izan du Asteasun egonaldi honek.

A- Zer iruditu zaizue Euskal Herria, eta Asteasu?

M- Ni lehen ere izanda nengoen eta orain orduan bezala gauza batek harritu nau, ez zehazki Asteasun, baina herri handiegoetan apenas entzun dut euskararik kalean.


T- Neri ere horrek harritu nau. Bestalde, pertsonen artean harremanak izateko erak badu antzekotasunik, eta horretan ere Madrileko jendearekin,

adibidez, baduzue ezberdintasunik. Hemen hasieran ez dizute hain harrera sutzurik egiten, baina harreman estuagoak bilatu eta lortzen dira. Bestalde, zuen hizkuntza berreskuratzeko egiten ari zareten ahalegin izugarria aipatu nahiko nuke, badaukagu zer ikasirik.

Obabakoak gogoraraziko zuen Asteasuko txoko ederren batean argazki batzuk egiteko toki aproposa bilatzen bukatu dugu elkarrizketa, erreka bazterra, belardiren bat, musker zapalduaren aztarna oraindik nabaritzen zeneko bidca... Mira eta Tarjarentzat Asteasuko txoko guztiak izan dira inspirazio iturri.

Nekazal ikasketak ezinbestekoak

Gestioa eta teknika ikasi behar da




“Baserriko edota nekazal jarduna ikasi egin ohi da, hau da, ikasketa tekniko batzuen ondorioa da, baldin eta etekin onak eta errentagarriak eskuratu nahi baldin badira behintzat”, hauxe da Fraisoro Nekazaritza Eskolako zuzendaria den Antton Carrerarekin hitz eginez jakin duguna. Mende hasieran bere gurin gozoak eman zion ospe eta izena. “Escuela de capataces” izena ere eman zitzaion, eta egun Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan kudeatzen duen eskola bakarra da. Bertan Zizurkilgo ikasle bat ezagutzeko aukera ere izan dugu: Elias Galatas, berak eman digu nekazal ikasketei buruzko xehe-tasun gehiago.

22

Teknika eta kontrola aregotuz

Ikasketa arautuari dagokionez batxilergoan ikasi ohi diren ohizko gaiez gain honako hauek dira lehenengo sei hilabeteotan burutu diren ikastaroak: nekazari gazteentzat informatika; ahate eta antzara hazkuntza eta gizenketa; nekazal enpresen kontugintza eta kudeaketa; behien ernalketa artifiziala; ingurugiroa ezagutu eta babestu;

nekazal mekanika eta soldaketa; nekazalturismoa; traktorea gidatzeko baimena; aukera berriak baserri tradizionalerako; lorategien diseinua eta zaintza, eta erlauntzen erabilera eta erle erreginak nola hazi. Era guztietako ikastaroak beraz, beti ere inguruko kooperatibetako baserritar eta erakundeekin bat hautatu-



AGUSTIN LEITZA 3 eta 5

takoak. Anttonek dionez azken urteotan arrakasta handien izan dutenak ingurugiro eta lorezaintza ikastaroak izan dira, "nolabaiteko moda ere badago" dio. Ikastaro hauek egiteko interesa, bestalde, ez daukate baserritarrek bakarrik, gero eta kaletar gehiago hurbiltzen baitzaie. Gazteak izan ohi dira ikasleak, hogeita hamabi urtetik gorako ikaslerik ez da normalean izaten.

Espezializazio konbinatua

Elias Galatas ikaslea bera kaletarra da, eta berak ere ingurugiroa eta landare zaintza omen ditu gogokoen. Baserriarekin ez du pentsa zitekeen bezain lotura esturik, baserria ba omen dute etxekoek, baina ez dira bertan bizi, baratzean baino ez dira ibiltzen. Nekazal ikasketak egitearen arrazoiaz galdetu diogu orduan, eta baserriatik bizitzeko asmorik ez omen dauka, gehienez ere esplotazioaren bat jarriko luke, landareak bere kasuan, beste askok ardiak edota barazkiak aukeratzen dituzten bezala.

Antton Carrerak berak argitu digu, gaur egun baserritar gazteek ez diotela ekiten garai bateko laborantza anitzari, gehienez ere bi edo hiru



iharduera aukeratzen dituzte urtean zehar eta konbinatu egiten dituzte. Izan ere, honek badu bere arrazoiak: baserritar euskaldunak Europako merkatuan konkurratu ahal izateko bide bakarra dauka, kalitatezko fruituak lortzea eta espezializazioa horretarako bide egokia da.

Baserri egiturak ere, denborarekin, beharbada, aldaketu egingo dira: " nekazal produktoen

komertzializiorako kooperatibak osatzea ezinbestekoa izan den bezala, produkzioan ere ez ote den gauza bera egin beharko".

Nekazaritza ekologikoa

"Gaur eguneko nekazaritza orain dena baino askoz ere ekologikoa izatea lortu behar dugu" dio Anttonek gai horri buruz galdetu diogunean. Halere, egun ematen ari den nekazaritza ekologikoari buruzko mugimendua lagundu eta bultzatu egin behar dela pentsatzen du. "Nolabaiteko abangoardia dira beraiek. Mozorroen kontrako pozoinen eta ganadua hazteko hormonon erabilera salatuz oso lan garrantzitsua egin dute adibidez".

Ikasketak ezinbestekoak

"Egun nekazal ihardueran aritu behar dutenek teknikaren arloa eta enpresa gestioa ezinbestez ikasi behar dituzte, alde batetik ofizioa ikasi eta emaitza onak lortzeko, eta bestetik, baserriaren kudeaketa errentagarria izan dadin" esan digu Anttonek. Bere ustez ez baserritarrek ez erakundeek oraindik ez dute behar bezain serio hartu nekazal hezkuntza. Beraz, ikasketetan dago erronka handia.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN



**ZIENTZIEN
AKADEMIA 51**

Matematika, fisika eta kimika
MAILA GUZTIAK
Goizez eta arratsaldez
Kale Nagusia, 51 - ☎ 59 33 79 ANDOAIN

ANTZOLA, S.A.

Aroztegia

AROZTEGI MEKANIKOA
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK
BARRUKO ATEAK
LURRAK
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK
MOTA GUZTITAKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA, 126 - ANDOAIN




AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea, DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN

-ZIZURKIL-

Bi bertsolari zizurkildarrei omena

Antonio Zabalak bildu ditu Otañoren bertsoak



Antonio Zabala ikerlaria

Hilabete osoan zehar kultur ekintzez blai egon da Zizurkil. Hainbat eta hainbat ekintzetan parte hartzeko aukeraz gain, herri honetan jaiotako bi pertsonaia ezagunak gogoratzeke une aproposa izan da Iriarte Kultur Etxearen inagurazio eguna. Pello Mari Otaño eta Teodoro Hernandorena izan ditugu protagonistak. Beraien lan eta ekarpen aberatsa ezagutuko ditu aurrerantzean Euskal Herriak.

eta bizitza jasotzen dituen liburuen egilea. Izan ere, ikerketa lanaren zailtasunak gaindituz, lehenengo aldiz Pello Marik utzitako lana osotasunean edukitzeko aukera eskaini baitigu idazle honck.

Bere bizitzan zehar pertsonaia "xelebrea" izan omen da, mundu honetan denetarik egin izan duen horietakoa. Gerra garaian iparraldera alde egin behar izan zuen. Bertsolaritzak loak harturik omen zegoen egun haiztan iparraldean eta Teodorok esnarazi omen zuen herriz herri, tabernaz taberna, bertsoak kantatzen. Mattin eta Xalbador bertsolariak berak eman zituen ezagutzera, Xalbadorrek beti eskertu izan diolarik honek emandako laguntza eta bultzada. Teodoro Hernandorenak argi zuen bere egitekoa: iparraldean bertsolariari prestigioa ematea, alegia.

Iriarte Kultur Etxearen inagurazioarekin bat, berau zeharkatzen duen kaleari Teodoro Hernandorena izena eman zaio, bere ondoan Pello Mari Otañoren soin-irudia ezarri delarik. Kultur Etxe hau Teodororen jaiotetxea izanik, leku aproposa izan da pertsonaia hauen berri izateko. Bestalde, ezin Antonio Zabala aipatu gabe utzi, Pello Mari Otañoren lana

Teodoro Hernandorena

Askorentzat ezezaguna bada ere, zizurkildarrei eta bertsozaleci oso ezaguna zaie Teodoro Hernandorena. Laurogeita hamabost urte betetzear dagoen bertsolariak ezin izan zuen inagurazio egunean bere herkideen artean egon, gaixo baitago. Halere, ezagutzen ez genuenok eta ezagun zutenek ere bere bizitzaren gorabeherak ezagutzeko aukera paregabea izan dugu.

1992an Bertsolari Elkarteak omendu egin zuen zizurkildarra, bere lana handia eta kontuan hartzekoa izan baita. Zizurkilek ere omendu nahi izan du, kaleari bere izena ema-

OINETARROAK

SAN JUANETAN ERE DANTZAN
ZAPATAK PUSKATU ARTEAN

MODESTA ARANBURU

Kale Berria, 28 - ☎ 59 03 07
ANDOAIN

ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

tearekin batera, bere egiteak gogoratuz.

Pello Mari Otañoren komeriak

Antonio Zabala apaizak hainbat liburu idatzi ditu gure herrietako bertsolari ospetsuen gainean. Bertsolariak eta beraien bizitza ongi ezagutzeko beren herrietara jotzea omen da biderik zuzenena. Baina ez da nahikoa azaleko bisita bat, bertako zokoak ondo miatu behar dira, eliza eta

Udal artxiboetatik hasi eta azken baserriraino joanez. Lan honetan aritzean bertakoa egiten dela iruditzen zaio Zabalarri, sustraiak botako balitu bezala. Zizurkilen ere gauza bera gertatu omen zaio. Otañotarren aztarren bila, lehendik ere bertan zituen sustraiak are gehiago errotu dituela iruditzen zaio.

Zabalak Adunan igarotzen zituen udako egunak haurtzaroan. Horregatik maiz joaten ziren Zizurkilerara, bertakoeekin harreman estua lortuz. Bestalde, bi zizurkildar bizi ziren Adunako *Sonola* baserrian, ikerlariak uda igarotzen zueneko baserrian alegia, eta horien eskutik izan du hein handian Otañotarren berri, horietako bat Pello Mari Otañoren lehengusu txikia baitzen. Umetako laguna zen Serapio Mendizabalek ere, Pello Mariren ilobak, laguntza handia eman dio idazleari.

Zizurkildarrek oso harrera ona egin diote Zabalarri bere zereginen hurbildu zaienean. Teodoro Mujika izan da lan honetan laguntza parega-



Pello Mari Otañoren soin-irudiari aureskua

bea eskaini dion herritarretako bat. Baserriz baserri Otañotarren berri jakin nahirik ibili dela, zizurkildarren artean Pello Mari Otaño oso maite izan dutela somatu du Zabalak, halaber, aspaldidanik zutela bertsolarien saildu zaindarizat, Uztapidek berak izendatu baino askoz ere lehenagotik, alegia.

Pello Mari Otañoren lana eta bizitzaren berri idaztea ez da ordea zeregin erraza izan, ikerketa eta bilketa lanak denbora eta esfortzu handia eskatu baitiote. Otañoren lana handia eta mamitsua izan da, bertso asko idatzi zituen bere bizitzan zehar eta Zabala beraien bila aritu da bere ikerketa osatzeko.

Bertsolariaren alaba den Maria Teresak hainbat gutun igorri dizkio Argentinatik bilaketa lan honetan lagunduz eta Bilboraino ere joan da Zabala Otañoren bertsoen bila. Hainbat herritako artxibategietara ere jo du, makina bat aldizkari eta egunkari arakatu Otañoren bat-bateko bertsoak bildu eta aztertu nahian.

Ikerketa hau pozgarria izan da Zabalarentzat bertso aberats ugari aztertu eta aurkitzeko aukera izan baitu. Bere bizitzako komeri eta kontuak aztertuz aldiz, ez du gauza bera sentitu.

Bizitza tristea

Tristura da Pello Mari Otañoren bizitza laburtzen duen hitza. 1857an jaio zen Zizurkilgo Errekalde baserrian. Zazpi urterekin Karidadeko bentara joan zen. Urte

gutxi hauek izan ziren bere bizitzako zoriontsuenetakoak, hemezortzi urterekin Ameriketara joan behar izan baitzuen Karlistadak zirela eta. Urte ugari eman zituen itsasoz bestalde baina ez zen bertan bizitzen ohitu, hezperimik jota.

1890ean etorri zen berriro Euskal Herrira. Donostian bizi izandako zortzi urte haiek, euskal giroan murgilduta, zoriontsuak izan ziren. Madalena Albedirekin ezkondu, eta Argentinara joan behar izan zuen berriro. Bertan hil zen Pello Mari Otaño berrogeita hamazazpi urterekin, bere sorlekutik urrun.

Artista handia izan zen Otaño, eta artista guztiek bezala, bizimodua bestelakoa nahi zuen, eguneroko eginkizunci aurre egin nahi izan gabe. Jendeak ez zion berak eginiko lanari garrantzi handirik eman eta orain dugu garaia Euskal Herria eta gure kulturaren alde Otaño eginikoa aintzat hartzeko.

Amagoia Mujika eta Ainhoa Oiartzabal

**A d u n a
Altzariak**

Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta



CIRCULO
MOBILIARIO

Elbarrena auzoa, 7/g
☎ 69 15 62 - 66 - Faxe 69 34 66
ANDOAIN



LEITZ

MENDIKO BIZIKIAK

Ankoras, 4 - ☎ 30 04 69 - ANDOAIN

-ASTEASU-

Ibar-Azpiko Joxe Angel Australian

Txundituta utzi zituen australiarrak harriak jasotzen ikustean

Joxe Angel Sarasola Ibar-Azpiko harrijasotzaile asteasurra duela gutxi itzuli da Australiatik. Bere afizioa den kirola eta parrandarako uneak tartekatuta ahal izan ditu gainera hiru astetan, "ia lotarako astirik gabe ibili gara" aitortu digu. Martxoaren 22an abiatu zen eta apirilaren 7an itzuli. Beste zazpi lagunekin batera egin du bidaia, sei kirolari eta itzultzaile bat. Bi aizkolari, bi trontzalari eta bi lasto-altxatzaile izan ditu bidailagun, bera gipuzkoar bakarra, arabar eta bizkaitarren artean. Bidaiak, besteak beste, bazuen helburu jakin bat, hain zuzen ere, Sidney-en urtero izaten den herri kirol txapelketan erakusketa eskaintzea. Eta herrialde ezezagunean nork hartu ere bazeukaten euskaldunek, Sidneyeko Gure-Txoko etxeak, alegia, gerra ondorengo laurogei emigrantek osatutako elkarteak. Euskaldunen artean egonda, Aberri Eguna ere ospatu zuten jai txiki bat eginez.

Urtero Australian izaten den txapelketaren berri ba omen zeukaten, baita Gure-Txokotik joateko gonbidapena ere, "dirua baino ez zitzaigun falta", dio Joxe Angelek. Eta atzera eta aurrera hasi ziren zenbait erakunde zirikatzen eta azkenean, Gure-Txokok Australian lortutako publizitate etxe batzuen eskaintzari esker joan ahal izan dira, "trukean, zenbait etxe publizitarioren kamisetak soinean geneuzkela ibili behar izan dugu".

Ikusmin handia


Joxe Angel izan zen euskaldunetan australiarren artean jakinmin handiena eragin zuena, izan ere aizkolariak, eta baita trontzalariak ere ezagutzen omen zituzten, baina "sekulako harri puskak hartu eta lepoan bueltaka ibiltzen zenik ez zuten inoiz ikusi", aitortu digu Joxe Angelek berak. 190 kiloko harria, 140ko kubikoa



Txapelketarako prestatzen

eta 100eko bola altxatu omen zituen asteasuarrak inguruan zituen guztiak txundituta utziz.

Aizkolariak ezagunak izan arren, ikusminik eragin ez zutenik ezin daiteke esan, izan ere, aizkolari euskaldunek sei enbor gutxienez moztzen dituzte normalean, eta txapelketan parte hartzen ari ziren beste guztiak enbor bakarra eta txikiagoarekin aritzen ziren. "Gizon puska galantak ziren haiek, aizkorak ere horrelakoxeak ziren. Minutu erdian bukatzen zuten lana, baina




Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

KURPIL

MENDIKO ETA ERREPIDEKO
BIZIKLETAK

DENDAKO TELF. 59 43 41
TAILERREKO TELF. 59 37 99



KALBERRIA, 22
20140 ANDOAIN

hemen aizkoran aritzea kostako zitzaicela iruditzen zait, ez zuen ematen erresistentzia handirik zutenik”.

Orain arte inoiz ez omen du euskaldunik txapelketa horretan parte hartu. Halere, Euskal Herriko federazioarekin hitz egiten hasiak omen dira ia eta, beharbada, hurrengo urtean, sail berezi bat jarri, eta euskaldunak bertan izango dira.

Euskaldunak harritura

Australiarrak ez ziren euskaldunak ikusita harritu ziren bakarrak, alderantziz ere gertatu zen. Kiroletan esate baterako, Australiako futbol-zelai obalatuak eta jokoan dagoen arau ezak utzi zituen harritura batez ere, “ez da hemen bezala, kontuan hartu beharreko gauza bakarra baloia kontrakoaren sarean sartzea da”.

Joxe Angelen iritziz, gertaerarik aipagarriena erreserbetan ikusi zituzten aborigenak izan ziren. Beraien aurrean ere egin omen zituzten erakusketak, “ezagutzeko

modu bakarra zen, turistarik ere ez da han izaten”. Eta hauek harritura baino, txundituta utzi omen zituzten, “gizon altuak dira haiek, baina oso makalak eta gu ikusita...”. Bertakoek ere beraien musika eta beste zenbait ohitura ezagutarazi zieten. “Orain dela 3.000 urte bezala bizi dira, ez dute ez baratzik ez animaliarik. Lurrak ematen dienaz bizi dira”.

Australia, nonbait, kontrastez betetako herrialdea omen da; aborigenak ezagutu ondoren Camberra bezalako “hiri perfektoa” ezagutu zuten, “ez dago kerik, ez dago zaratarik, lantegirik ere ez da ikusten. Inor ekologista baldin bada, australiarra da hori. Eta gauzarik bitxiena zera da, ez dagoela alderdi politiko ekologista bakarrik”.

Gipuzkoako txapelketa

Maitzak 22an Asteasun izan zen Gipuzkoako txapelketarako entrenatzen ari zela kontatu zigun Joxe Angelek Australiaz hitz egin ondoren. Iazko jaietan 200 kiloko harria jaso zuen, Errezilen 125 kiloko harri baldarra jasoz txapela lortu zuen, halaber. Eguberrietan berriz, tenkada izan omen zuen. Gurekin aritu zenean nahikoa alfertuta zebilela esan zigun, harri txikiarekin entrenatzea ez zirudien oso gogoko zuenik. Halere, gogor entrenatzen ere ikusi genuen. Guk, elkarrizketa bukatu aurretik, Asteasuko plazan marka ona egin zezan opa genion San Pedrotan orain dela lau urte harria jasotzen hasi zen asteasuarrari eta Australian bezainbesteko jakinmina sortu ez badu ere, Gipuzkoako txapelketan bizilagunak bere lana arretaz jarraitzen izan dituela ziur gaude.



Euskaldunak Sidney

Argitarapen honen edizioko laguntzailé:

En la edición de esta publicación colabora:



-
-
-
-

kutxa fundazioa

fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Kanposantuetaz



Zenbait hilarri oso hondatuta daude

Rikardo Arregi kalean dagoen kanposantua aurki botako dute. 1.856ean Gipuzkoako Gobernadore zibilak Udalarari ondorengo agindua eman ondoren eraiki zuten hain zuzen ere: "...berehala ekin behar zaio kanposantu berria eraikitzeari, izan ere, gaur egunekoak ez ditu zientziak eskatzen dituen baldintzak betetzen. Udaleko jaunak, Medizina eta Zirujian tituludunekin elkar-tu eta ados jarri ondoren, kanposantua eraiki beharreko parajea aukeratu eta lur sailaz hornitu beharko du Udalak...".


Urte bercean, aurrekontua egin eta lur saila aukeratu zen. Hala ere, ez zitzairen eraikitze lanei berehala ekin, eta ezagutzen ez ditugun arrazoiak medio, 1.864. urtera arte ez da eraikitzen hasiko. Azkenean, 1.866. urtean egin zen hilerria, eta orduan egin ziren lehenengo chorzketak.

Gobernadorearen idatzian aipatzen den kanposantua eta orduan existitzen zena, egungo San Martin de Tours parrokiaren ondoan zegoen. Geroago leku berean Manuel Larramendiren eskultura jarri zen. Orduko hilerriari "cementerio viejo" esaten zitzaion, Buruntzan zegoen "camposanto viejo"tik ezberdintzeko. Azken hau zegoen tokiari, gaur egun oraindik ere, "kanposantu zaharra" esaten zaio.

Higieneko arrazoiak eta zabaltze lanak

1864ean kanposantu berria eraikitzeko higieneko arrazoiak eman ziren. 1.901ean kanposantu zaharra botatzeko, higieneko arrazoiez gain, beste arrazoi batzuk ere eman ziren, hain zuzen ere, zabaltze lanak beharrezkotzat jo ziren, prozesio eta meza egunetan eliza atarian jendetza handia pilatzen baitzen. Aipatzekoa da 1.866. urtean utzi ziotela kanposantu zaharrean hildakoak lurperatzeari. Hilerri zaharra botatzeko elizaren eta agintari zibilen baimenak 1.901ean iritsi ziren, 1.901eko maiatzaren 15ean Gasteizko Gotzaitegiko eliz-gobernadorearena, maiatzaren 29an Gipuzkoako gobernadore zibilarena.

Izango duzu, ziur, ezagutzera ematea merezi duen aintzinako argazki edo erretraturen bat. Argazkiarekin batera bidaliezaguzu azalpen txiki bat idatziz.



Dietetika
eta Belardenda


ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta
Iridologia
Masajea
Estetika

Akupuntura
Ile tratamenduak
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

TOLOSA
ANDOAIN



MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

MIRARI

ILEAPAINDEGIA


ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN

Gaurko Goiko Plazan dagoen San Martin de Tours elizaren ondo-ko kanposantua 1.759-177 eraiki zela pentsatzen da, nahiz eta Lema, Vázquez eta Muro-ren lanen arabera jakin, XIX. mendera arte hildakoak elizetan lurperatzen zituztela. Legez 1.787an galerazi ziren ehorzketak elizan, hala ere, 1.810ean ehortzi zen lehenengo hildakoa Andoaingo hilerrian.

Rikardo Arregi kalean dagoen kanposantuari dagokionez, 1.902an egin ziren pascalekuak barrenean. 1.903an iparraldetik zabaldu zen desnibelean, eskailera batzuetatik hel zitekeelarik bertara. Eta, azkenik, gaur egun ezagutzen dugun bezala, hau da, gainaldearokin eta sarrerako atariko hormak txurrituta, 1.905ean egin zen.

Txikiegi bilakatu

Hirurogeieko hamarkadan hasi ziren konturatzen hilerri berri bat eraikitzea beharrezkoa zela, izan ere, "egungoa ez da nahikoa herriko biztanle kopurua kontuan hartuz eta bestalde, bere kokapena ere ez da legeak agindutako arauetara egokitzen". Halaxe esaten zen 1.964ko maiatzeko Udaleko Osoko Bilkuran orduko alkatea zen Jose Mari Garagorrik aurkeztu eta onartu zen mozioan. Onespenez honen ondorioz onartu zen "kan-



Toki falta ere badago

posantu berria kokatzeko tokia hautatzeko zegoen gestio lanei ekitea".

Garai honetan Andoaingo biztanlegoa izugarri igo zen: hamabost urtetan bikoiztu egin zen, 1.950ean 4.647 biztanle zituen Andoainek, 1.965ean berriz, 9.640. Horregatik eraiki ziren etxeak hilerriaren inguruan, halaber, garai berekoak dira Aita Larramendi auzuneko, Agustin Leizeta eta Pake-Lekuko etxeak.

1.968. urte arte hilerri berria egiteko toki aproposa aukeratzeko ez ziren berriro hasi. Urrian aukeratu zen hori eta eraikuntza proiektua Juan Mari Agirre Orobiourrutia arkitektoari agindu zitzaion.

1.969ko uztaileko proiektua eginda egon arren, 1.975ean Javier Yanci Balzola arkitektoari agindu zitzaion "Pagamendiko Udal hilerri berriaren proiektua". Azken hau 1.976ean onartu zen. Eraikuntza lanak amaitu eta 1.981eko urtarrilean hasi zen erabiltzen.

1981ko urtarrilean azkenengo ehorzketa egin zenetik legeak agintzen duen epea beteta, 1.994ko martxoaren 2an onartu zuen Osasun sailak behin-betiko itxiera eta hildakoak Pagamendiko kanposantura eramatea.

Karmele Otaegi

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



**ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA**

JOXERRA GARMENDIA MUJICA
MARI JOSE GOENAGA URIARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA
Antxin kalea, 3 behea - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA



INCARGI

KALITATEKO URDAIAZPIKOA

Joxe Ramon Jauregi Tapia

Gudarain Etorbidea, zenb. g. - 8. Industri Poligonoa
Telefonia 30 02 34 - Faxe 30 01 87
ANDOAIN




XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

-ANDOAIN-


Bandaren tradizioa berreskuratu nahiean

Andoingo Udal Musika Eskolan banda bat sortzeko lehendabiziko pausoak ematen hasiak dira bertako ikasleekin

Garai batean herri askotan bazuten banda, igande arratsaldetan dantzaldiak eskaini eta egun seinalatueta kalez kale ibiltzen zena. Baina arrazoi desberdinak zirela eta, herri asko bandarik gabe geratu ziren. Andoainek ere galdu zuen bere banda, baina gaur egun bada Udal Musika Eskolan zenbait ikaslerekin osatutako talde bat, etorkizunean, beharbada, banda izan litekeena.

“Orain dela bizpahiru urte klarinetea, saxofoia eta tronpeta jotzen zuten ikasleekin talde txiki bat osatzea bururatu zitzaigun. Astero entsaiuak egiten hasi ondoren, ia Andoingo San Juan jaietan Goiko Plazan eskaini genuen lehen kontzertu garrantzitsua” esan digu Luis Mari Garziak. Bera, Tolosako Udal Bandako zuzendaria izateaz gain, Andoingo Udal Musika Eskolako irakaslea ere bada, eta eskolako ikasleekin osatutako talde hau zuzentzen ari da. “Ikasle guztiak oso gazteak dira, adina batz beste hamabost urtekoa da, halere, badugu jende zaharragoa eta gazteagoa ere”.

Beraien asmoa talde honetatik banda sortzea litzateke. “Pixkanaka hasi behar da banda sortzen. Badago horretarako giroa, eta ikasleen gurasoen eta Udalaren laguntza izanez



Santa Krutzetan eskainitako kontzertua

gero, Andoainek, beharbada, bere banda berreskura dezake”. Banda bat osatzeko berrogei bat partaide beharoko lirateke, eta gaur egun hogeita bosten bat ikasle ari dira jotzen. “Dena den, azken aldian eman ditugun kontzertuetan kanpoko jendearen laguntza ere izan dugu. Kontzertuak ditugunean espreski laguntzera etortzen zaizkigu, Andoingo garai bateko bandan ibilitakoak, txarantetan ibiltzen diren andoaindarrak eta Tolosako zenbait lagun ere etorri izan da, bonbardino edo tuba jotzera batez ere, instrumento horiek joko dituen jendea falta zaigulako”.


Banda bera da eskola

Luis Mari Garziaren ustez bandak herrian funtzio garrantzitsua beteko luke, egun seinalatueta jotzeko eta tarteka kontzertuak eskaintzeko, baina batez ere bandak musika jotzen jarraitzeko gogoia ematen die ikasleci. “Hori da inportanteena. Askotan ikasleak eguneroko klaseetan aspertu egiten dira, egunero eskalak eta arpejiak jotzen, eta horregatik, banda aliziente bat da beraiantzat. Laugarren edo bostgarren mailara iritsi, eta euren buruari galdetzen diote: eta orain zer...? Horregatik, musika jotzen jarraitzeko modu bat izan liteke banda”.

INPRIMATEGI AZKARRA

Txartelak, burukopiatzaileak, liburuxkak, katalogoak, kartelak, aldizkariak...

**PROPAGANDA
ETA BUZONEOAK
48 ORDUTAN**



HEMENTXE
PUBLIZITATE eta KOMUNIKAZIOA

Zure lanerako aukera
grafikorik egokiena

Elizondo Enparantza, 4 behea
20140 ANDOAIN

Tel.: 30 00 69
Faxa: 30 01 17



Luis Mari Garzia

Bandak berpizten ari dira

Aspaldi herri askotan baziren bandak, eta arrazoi desberdinen eraginez asko bandarik gabe geratu ziren. Dena den, azken urteotan herri askotan musika bandak berreskuratzeari lortu dute. "Gipuzkoan sekulako indarra hartu dute berriz ere bandek eta federazio bat ere osatu dute. Kostaldean banda asko ari dira une honetan sortzen, Deban, Getarian eta abar. Beste herri batzuetan berriz, Irunen edota Bergaran bi banda dituzte, bat gazteena eta bestea helduena".

Musika bandei buruz hitz egitean ezinbestekoa da Valentzia gogoratzea, "Mediterraneo aldean ikaragarriko tradizioa dute. Andoainen tainainako edozein herritan hiru edo lau banda dituzte. Eta banda bakoitzak 80-90 musiko izaten ditu. Bandan jo-

tzeko ohitura belaunaldiz belaunaldi pasatzen da, gurasoengandik seme-ala-bengana".

Larunbatero elkartzen dira goizetan musika eskolako ikasleak entsaiuak egiteko, Luis Mari Garziaren zuzendaritzapean. "Betidanik musika banda batek pasodobleak jo izan ditu, baina gaur egun bestelako pieza batzuk ere sartu ditugu. Pelikuletako musikak, jazz estilokoak..., pieza martxosoak jotzea gustatzen zaie ikasleei. Gainera, badira zenbait pieza bandak txistulariekin batera jo beharrekoak. Horrelakoetan Andoingo Txistulari Bandaren laguntza izaten dugu. Adibidez, Santa Krutz jaietan elkarrekin jo ginituen zenbait pieza".

70ean desagartu zen

Luis Mari Garziak adierazi digunez, gaur egun musika banda batek egun seinalatuetan jo dezeka kalez kale, eta hilabete behin kontzertuak eskaini ditzake. Horiek izan litezke bere betebeharrak nagusiak, gaur egun ez luke zentzurik izango garai batean bezalaxe igande arratsaldetan dantzaldietan jotzeak. Horrexegatik geratu zen Andoain bandarik gabe. "70eko hamarkadaren hasieran igande arratsaldeko dantzaldietara oso jende gutxi agertzen zen, eta bandaren dantzaldietara inor gutxi agertzen zela ikusita, bandak aurrera ez jarraitzea erabaki zuten. Musika bandak

jotzen jarraitu behar zuela uste zuen orduko Udalak baina denborarekin Andoain bandarik gabe geratu zen, eta dantzaldien estimazio eskasa izan zen arrazoi nagusietako bat". Horrela azaldu digu Luxio Aranburuk garai hartan bandarekin gertatu zena. Luxio hamazazpi urtekin sartu zen bandan, eta bertan egon zen banda desagertu arte. Don Luis Fraca izan zen Andoingo bandaren azken zuzendaria, eta urte haietan Luxio Aranburuk zuen bere esku zuzendari ordepostua.

Alkate soinua

Luxiok gogoan du banda kalez kale nola ibiltzen zen, eta meza bukatu eta elizatik irtetean *Alkate soinua* izeneko pieza nola jotzen zuten herriko txistulariekin batera. "Elizatik Udal agintariak ateratzen jotzen genuen *Alkate soinua* txistulariekin batera. Fracak banda eta txistularientzat pieza horren moldaketa egin zuen".

Garai bateko bandan ibilitako honek oraingo talde berriarekin ere jo du zenbaitetan, azkeneko aldiz Santa Krutz jaietan emandako kontzertuan. "Musika banda eskola bat bezalakoa da. Bandatik pasatuz gero, jendeak txaragetara salto egitean hobeto joko luke. Musika ondo jotzen ikasteko balio du bandak", esan digu Luxio Aranburuk.

Andoingo herria musika banda gabe geratu zen, baina baliteke noizbait aspaldiko ohitura hori berreskuratzeko modua izatea, horretan ari dira Udal Musika Eskolako ikasleak eta Luis Mari Garzia irakaslea.

Manu Etxezortu

Litawna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

GARBI

Drogeria
Lurrindenda

Kale Nagusia, 18 - ANDOAIN



● **Xabier Lasa**

EITB-KO KALEA GIZON PRESTUONA DA, EZ ALGARABIA- ZALE HORIENA!

Halakoxeko slogana imajinatzen dut pasaraziko ziotela Joxerrari "Debaldeko Festa" magazinean. Zentsura infantil horren aurrean, ezin egin diet uko balorazioei, gertakizun aislatua ez baizik gauza askoren sintoma baita.

EITBren kaxak eta irriti uhin publiko kastellanozko zein cuskarazkoek, ohituta gintuzten euskal errealitatearen ikuspegi ofizial bat soilik ikustera, zenbait gobernariaren eszelentziak eta mirariak behar bezela filtratu eta "kallejeatuta" eta "bikuñiztuta" ematera, eta ostera "betiko endredatzaileenak" satanizatuta agertzer. Adibideak, hatzaparka. Bat, ilustratzeko: euskal presoen situazioaren inguruan Anoretan bildu ziren hogeitamar mila lagunena eta Gazteizko hogeinakakoa. Batean ebidentzia ukatu, bestean jesukriston desplicgea.

- Haatik, harrizkoa geratu banintzen, ez zen izan "Debaldeko Festan" gorai-zea modu deskaratuaren erabili zutelako, ez, lehenago baizik! Noiz? lau "zarpaitsu-probokatzaille" gure herri honen kezken beste bertsio bat larru bizian ematen azaldu zirenean. Laster itzuliko zen ordea "normaltasuna" eta "konbidentzia paketsua" euskal sukaldeetara: ente publikoetan zer ikusi eta zer entzun behar dugun programatzen dutenek, aguroko erreflejuz zera crabaki zuten: teleikusleok heldugabe geundela bertso sataniko haien mezu lizun eta subertsiboak entzuteko. Eskerrak eman beharko zeru alde horretan dauden gidari espiritual zintzoez, gure giza formazio ahula hain fidelki zaintzen digutelako!

Esker beroagoak Gartzari, telebistentzat tabuak diren gai betoaren estalkia kentzera ausartzagatik. Halere, kuriositate maliziatsu batek menderatzen segitzen nau, EITBekin: noraino heltzen den zuzendaritzaren kontrol ideologikoa, noraino informatzaileena. Arcago, zenbateko indarra duen kazetariengan autozentsurak...

- Bertsolariek joko arauak errespetatu ez zituzten aitzakiak ez du ez buru ez buztan; arrazoi hori non botako eta gai aldetik libertatea eskatzen duen bertsolaritzaren jokoan! Instituzioei ere egin omen zitzaizkien iseka. Nik dakidanez, bertsolaria adierazpen askatasuna ejetzizatu zuten, legalitatearen barruan. Bertsoak satanikoak zirela pentsatzen duenik baldin bada, jo dezala juzguduetara.

- Zalantzak ditut Euskal Irrati Telebistaren arduradunek ba ote dakiten euskal gaztedia ez dela mugatzen pertsona-tipo batera; alegia, guztici ez zaizkiela kezkek bukatzen *Ikimilikiliklip* musika saioa bezalakoetan gazte txatxu eta snobak ematen dituzten lixta komertzialekin. Ezta ere estetika kontutan amaitzen "konfidantzakoa" duen beste bertsolari teleinformatzaile baten belarritakoarekin.

- Azkenik, zera, bertsolariok ortodoxoegiak omen dira; gaztetasuna adinarekin sendatzen den gaitza da antza denez. Sasiargudio hori, ene iritzi, gaztetasunaren ispiritu ausartazale eta errebeldea ulertzen ez dutenen partetik baino ez luke etorri behar. Heterodoxia inori sujeritzen hasi, eta jo mesedez erretribuzio galantak poltsikoratzen dituzten zenbait direktiboengana. Kargu publikoak, berea gorde eta iritzi anitzetara irekita egongo den pertsona eskatzen baitu, ez inkisizailerik.

HARKAITZ
CANO



BEZALA


"KEA BEHE- LAINOPEAN BEZALA" SUSA.

Harkaitz Canoren lehen poema liburua da hau. Hauxe da Gari-koitz Berasaluzek liburuari buruz idatzitakoa: "Errealitatearen galtzak jazten dituen hitza da poesia, sentibiltatearen eta lanaren patrikez osatua, irakurleak atsegini badu eskua sar dezan. Poesiatik bilatu nahi izan ditu Harkaitz Canok hiriaren egunerokotasunari darion kea eta gizartearen behelainoa. Liburu hau ke bufada bat baino zerbait gehiago izango da gure literaturaren behelainopean".



"TRANS- EUROPE DIATONI- QUE" SILEX.

Kepa Junkera, Riccardo Tesi eta John Kirkpatrick soinu-joleek egin dute diska hau. Kirkpatricken esperientzia eta doinugintza potentia, Tesiren temple eta gozotasuna, bere doinuen kalma eta serenitatea eta Keparen goitasunezko tximist eta txinpartak biltzen dira lan honetan.



José Galparsoro

BALDOSAK - GRES - AZULEJOAK
ETXEGINTZARAKO MATERIALA

ERAKUSKETA: Kaleberria, 36 behe - ☎ 59 25 55 - Etxekoa ☎ 59 18 91

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Borda-berri poligonoa, 5 - ☎ 30 01 45

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behe

ANDOAIN

PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK

Javier Clemente, Espainiako futbol selekzionatzailea

A- Egun, dirudienez errazagoa da Espainiako Futbol Federazioan hainbat euskal herritar goi karguetan egotea, euskal selekzio baten aldeko aldarrikapenean jardutea baino.

C- Gaztetandik ezagutzen duzun jendearekin lanean jardutea garrantzitsua da. Bai futboleko baita beste edozertan ere, ondo ezagutzen baitituzu. Euskal selekzioa gauza hipotetikoa da. Euskal selekzioak, gaur egun, ez du lekuri mundu mailako futbol egitura. Noizbehinka zerbaitek egiteko bai, baina ez profesionalki ez nazioarte mailan ez du lekuri. Soilik egitura politikoa izanda da posible selekzioa; nahiz eta Euskadik gero eta eskumen gahiago dituen, ez dakigu etorkizuna nolakoa izan daitekeen. Etorkizuna iritsita, Euskadiko selekzio baten planteamentu erreala egiterik izango da. Gaur egun ametsa da. Agian gure seme-alabek ikusiko dute. Eskura ditudan gauza errealekin amets egiten dut.

A- Zer egingo zenuke hemengo batek Espainiako selekzioari uko egingo balio?

C- Ulertuko nuke; bakoitza libre da selekzioa joan edo ez erabakitzeko. Baina araudi bat dago, horren arabera jokalaririk profesional guztiek selekzio nazionalaren koloreak defenditu behar dituzte. Jendearen ideiak eta sentimentuak errespetagarriak dira, hala ere ez dut uste hori gertatuko litzatekeenik. Edozein profesionalarentzat gailurra selekzio nazionalen jolastea da, ospe eta izenagatik.

A- Euskal selekzioa, baina, ez litzateke ahuntzaren gauerdiko eztula izango.

C- Euskal jokalarien kalitate maila alor askotan oso altua da. Teknika onekoak dira eta beraien sasoia ere oso ona da. Bizitzeko modua, laguntasuna, txikitandik oso sustraituta daude hemen. Irabazle sena dugu. Talde ona izango litzateke baina kanpoan ere jokalaririk bikainak daude, jende langilea, borrokalaria.

A- Autonomia, federalismoa ala independentzia?

C- Independentzia ez behintzat. Inor ezin daiteke independenteki bizi. Independentzia hitza jenerikoki hartuz gero, "gu bakarrik, gure politika, gure industria..." horrela jokatzuz gero, bi hilabeteren buruan gosac hilgo ginateke. Nire ideiak izatea, zer egin nahi dudana... horretan, noski independentea naiz. Besteekiko herri independentea izatea, berriz, ezinezkoa da. Bestalde, ez dut federalismoa zer den ondo ulertzen. Autonomia, aldiz, guk nahi dugun gisara bizitzeko moduari deritzot, baldin eta besteekin harreman onak baditugu.

A- Eta politikariak zer?

C- Arzalluzi estima handia diot, kritikatuena izan arren. Bere ideiekin bat nator, fede handia dut beregan. Behin baino gehiagotan, esaten duena ez dut ulertzen, baina orokorki oso gustukoa dut: politikaz asko baitaki. Ni EAJkoa naiz. Alderdiarekin ez nator bat %100, baina bai % 80. Hori dela eta ematen diot botoa.

(Argia, maiatzak 1)

Gure artean Agirretarrak, Lasatarrak, edota Etxeberritarrak nahikoa ez bagina bezala, orain sendi berri bat sortu da Euskal Herrian: Gorilegitarrak. Diskurtsoen tokian, slogana dute eta jakituriaren lekuan, baldekada bat zabor. Memoriaren zakua historiaz bete ordez, beraien bakarrik kontsola ditzaizketen sinplekeriez betetzen dute, eta sentsibilitatea, oh sentiberatasuna!, kloroformotan itota daukate litrona baten barruan. Izugarria dutena akzio-rako gaitasuna da. Aski da argi printz bat beraien zerrautsezko ganbaran sartzea, esaldi mesianiko borobil bat osatu, munduko spray guztia erosi eta Tolosako Trianguluaren Plazan jarri berria den Oteizaren Ataus eskulturaren gainean, sintesis izugarri bat idazteko: Mierda, KK, Zipaio cabrón... Jatorrak dira, zinez. Gorilegitarrak: tximuen erreinura itzuliz, herria salbatu nahi digute. Platanoak erosten hasi beharko.

(Egunkaria. Apirilak 23. Hasier Etxeberria)

Joxean Agirre: "Neska bat itsusi antzekoa izanda ere, dantzari ona izanez gero, estimaziorik izaten al zemon?" Joxe Lizaso: "Nik ez dut neska itsusirik ezagutu. Neri behintzat ez zait tokatu. Emea izanez gero pozik izaten ginen. Izan ere, orduan denentzako karia ona izaten nuen, askotan etxekoentzat orain izaten ez badut ere".

(Bertsolari aldizkaria)

BENTA Sagardotegia



Espezialitateak, bakailua tortillan, saltsan eta frijitua, txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO ERREPIDEA

☎ 69 30 94

FOTO-BIDEO-ARGAZKI

JAUNARTZE ETA EZKONTZETAN OPARI ETA BEHERAPEN UGARI!!

KALE NAGUSIA, 19 behea

☎ 30 07 27

ANDOAIN

B
I
K
O
I
T
Z

AZKAIN Motoak



HONDA - SUZUKI
KAWASAKI - YAMAHA

MOTA GUZTIETAKO
SCOOTERAK
SALMENTA ETA
KONPONKETAK

Ubillos auzoa, 56. poligonoa, 12
☎ eta faxa 59 14 18
A.N.D.Q./E.N.

Hots, hots!

JAIOTZAK

ANDOAIN: Mikel Lazcoz Enetarriaga. Apirilak 15.
Joseba Oteiza Arabaolaza. Apirilak 24.
Marta Oteiza Arabaolaza. Apirilak 24.
Urko Gil Rodriguez. Apirilak 24.
Janire Sarasua Santano. Apirilak 27.
Aitor Carrera Sierra. Maiatzak 9.
Jon Jauregi Sunsundegi. Maiatzak 9.
Asier Lizaso Recio. Maiatzak 10

BILLABONA: Urko Cid Salido. Apirilak 15.
Mikel Otaño Irazusta. Maiatzak 3.
ZIZURKIL: Leire Izagirre Arratibel. Apirilak 22.

EZKONTZAK

ANDOAIN: Juan Carlos Pérez y Hierro eta Maria del Coro Unzalu y Altuna. Apirilak 23.
Jose Ignazio Gaztañaga Urkia eta Maria Luisa Godoy Sánchez. Apirilak 23.
Manuel Cauto y Cidre eta Mercedes Ortega Pérez. Maiatzak 7.
Severiano Etxeberria y Urrutia eta Naima Hammuti. Maiatzak 14.

ASTEASU: Jose Luis Imaz Letamendia eta Itziar Beristain Iturbe. Maiatzak 7.

BILLABONA: Angel Mari Fernández Igarabide eta Faustina Descalzo Cabaleiro. Apirilak 30.

ZIZURKIL: Jose Ignazio Urkia Belartxo eta Pilar Asuncion Gorostidi Gorostegi. Apirilak 23.



GOIAN BEGO

ANDOAIN: Jose Manuel Claraco Launa. Apirilak 19.

Carlos Huete Hernández. Apirilak 30.

ASTEASU: Manuela Beobide Esnaola. Maiatzak 3.

ZIZURKIL: Maria Josefa Mendizabal Zubelzu. Apirilak 16.

SUKALDE TXOKOAN



Andoni Arabaolaza.
Borda jatetxeko
sukaldaria.
Andoain.

Zizaz betetako legatza gazta saltsarekin

Osagaiak:

Kilo bateko legatza.
300 gramo ziza.
Kipula txiki bat.
Ardo zuria.
Gatza eta piperrautsa.
250 zl. esnegain.
250 zl. arrain salda.

- 1- Legatza garbitu eta xerratan moztu. Zizak ere garbitu eta moztu.
- 2- Kipula oso mehe moztu eta ur egiten utzi. Kipulari zizak bota eta beratzen utzi. Xerrak erdibitan zabaldu eta zizaz bete.
- 3- Ontzi zabal batean ipini. Gatza eta piperrautsa bota eta labean sartu.
- 4- 5 minutu igaro ondoren ardo zuria bota, eta beste 5 minututan sutan utzi.
- 5- Bitartean esnegaina irakiten ipini arrain saldarekin eta gazta takotan bota. Utzi irakiten 5 minutuz. Iragazton-tzian pasa eta gatza bota.
- 6- Saltsa plateretan jarri eta xerrak zizaz beteta ganean jarri. Perrexila txiki-txiki eginda ere bota daiteke.

**ERNIOBIDE**
JUAN CARLOS ARICETA
ZURGINDEGIA

-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, 7/g - ☎ eta Faxa 69 26 75
BILLABONA

IZEIA

LURRINDEGIA - APAINDEGIA

Juan Bta. Erro, 2 - ☎ 59 21 46 - ANDOAIN

OLAZABAL
ITURGINTZA
BEROGAILUEN INSTALAZIOA
UR BEROA
ITURGINTZA
E-G IV GASA

J.Larreeta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66
ANDOAIN

Ikasketak

ANDOAIN:

☛ Enpresa ikasketetan diploma-tua eta irakasle esperientziadunak OHO, UBI, eta IEE-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest dago. Plazaola 3, 5-B. Isabel.

☛ OHO eta REM-eko klase partikularrak emango nituzke. Deitu ordubietatik laurak bitartean telefono honetara: ☎ 59 05 48

Lana

ANDOAIN:

☛ Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke goizez eta arratsaldez. Deitu hamabietatik lauak bitartean. ☎ 59 11 55

Salerosketak

URNIETA:

☛ 70m²-ko apartamentua salgai Idiazabal kalean. Goi mailako kalitate eta zerbitzuak. Lagarren solairua. 11.800.000 pezeta. ☎ 55 27 69. Arratsaldez deitu.

ANDOAIN:

☛ A-P-5 argazki makina nikon bat salgai. ☎ 55 03 49

Harremanak

BILLABONA:

♥ **Aitziber:** Rainbow-en sartzen zaren bakoitzean zure atzealdeak zeharo crotzen nau. Zer gertatu ote da zeruan aingeruak lurrera jeisteko? Maiatzaren 28an arratsaldeko zortzietan itxoingo zaitut Rainbownen. AIURRI bat eramngo dut besapean ene begietako gozamenen.

Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalan-tzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaiguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da.

Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.

GYRE LAVBIDE, S.L.

SALMENTA ETA KONPONKETAK

Motoaitzurrak - motozerrak - sasikengailuak - segak - sulfatiluak - generadoreak - ordezkioak - eranskinak

STIHL
Kubota
Husqvarna
AGRIA
YAMAHA

ESKEINTZA BEREZIAK:

Jet 46 R. Belarmozgailu azkar, eroso eta segurua



49.695.-


2
URTEAKO
GARANTIA

DESBROZADORA
SUEDIARRAK PREZIORIK
ONENEAN:

69.923.-

89.550.-

119.336.-



Nazional 1 errepidea, Bazkardo bidegurutzea - ☎ 59 01 78 - ANDOAIN



Santa Krutzetan

Andoaindarrei:

Urte dexente ziren Andoaingo Santa Krutzetara etortzen ez nintzela eta, jakina, gogoan nituen garai bateko Santa Krutzak eta bertako giroa. Aurten etorri naiz eta, bene-benetan, penatuta itzuli naiz. Arrotzen gisan ibili behar izan dut andoaindarra izanik. Eskubide osoa dute Gestorak, HBk eta inguruko guztiek bere barrak eta tabernak jartzeko. Lotsagarria eta penagarria iruditzen zait, baina, festa eta festa giroa, horren beharrez, inongo erreparorik gabe, berea egitea. Erantzun baten zain nago: nola eta zergatik iritsi dira horretara Santa Krutz festak? Festa horiek Udalak pagatzen al ditu? Festa komisio batek edo HBk eta bere tailer kulturalak antolatu ditu? Beste gisakoak ziren garai batekoak! Orduan gauza askotxoren falta somatzen genuen, baina giroa ederra zen.

Ondo pentsa zer izango den andoaindarren etorkizuna gauzak bestela egiten ahalegintzen ez badira!

Txisteronekoa
Zizurkil

Andoaingo Udal artxiboa

Kazetaritzan maiz erabili ohi den erantzuteko eskubideaz baliatuta, AIURRI aldizkariari ondorengo lerro hauek zuzendu nahi dizkiot, aurreko alean "Artxibategiak eskura" deituriko artikuluan egin ziren zehaztasunei dagokienez baino, egin ez zirenei buruz aipamena egin asmoz.

Nire ustez, bertan AIURRI aldizkarian parte hartzen duten bost herrien aipamena egiteak, Andoain aipatu gabe, irakurlea nahas egin dezake, eta pentsarazi Andoainen ez dela artxiborik existitzen, edota larriagoa litzatekeena, artikuluan ezagutzera ematen den ezaugarri horietako proiektu batean Andoain interesaturik ez dagoela.

Izan bitez lerro hauek hutsegite hori zuzendu eta Udal artxiboari buruzko informazioa emateko. Honako artxibategi honek hamar urte inguru eman ditu Udaletxeko dokumentazioa antolatzen, artxibo berezietan Andoain herriari dagokiona sailkatzen, Paperak eta Leyçaur bezalako argitalpenen bitartez ikerketa historikoa bultzatzen eta zenbait interesatuen eskakizunei erantzuten. Urtarriletik hona, esate baterako, 164 kontsulta egin dira dagoneko, era honetan artxiboko atearak jende guztiari irekita daudela erakutsiz.

Agur bero bat

Udal artxiboko egungo arduraduna, Karmele Otaegi.
N.A: 15.939.781

36

Gogoan har ezazu irakurle, bidali nahi duzun karta edo idatzia, kasu guztietan, zure izena eta bi deiturez eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin lagundu beharko duzula. Era berean, zure helbidea jakinaraziezaguzu, arren!

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA


fotocolór

ERREBELATUA ORDU|LEAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a.en erreportaiak
Lan Industrialak



José Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro, 1 - ☎ 59 43 32
ANDOAIN



Xabier Usabiaga.
Asteasu.

ESPAINIAKO ITZULIA

Amaitu da hasiera batean komentario asko sortu zituen itzulia. Hasi aurretik nahiko festa izan genuen antolatzaileek Miguel Indurain itzulian parte hartzea behartu nahi zutela eta. Orain ondo ulertzen da antolatzaileek zuten gogo hura.

Ibilbidea nahiko orekatutzat joko nuke. Banakako erlojupekoan 101'5 km bete behar izan dituzte. Mendateak ere ugariak izan dira, 41 guztira, eta horietako seietan egon da kokatuta helmuga. Nahiz eta mendate batzuk gogorrak izan, ez dituzte espero bezalako diferentziarik markatu. Beraz, gaur egungo txirrindulari motari egokitzen zaion ibilbidea izan da, hau da, bai mendia eta batez ere erlojuaren aurka ondo moldatzen den txirrindulariari egokituta.

Itzulia Valladolid-en Rominger-en garaipen bikainarekin hasi zen. Lehen egunetik, gero erakutsi duen indarraren ikusaldia eman zuen. Hurrengo etapek ez zuten gauza aipagarriarik izan. Talderik xehenek erasoan hasten ziren lehen kilometroetatik, baina talderik indartsuenek (Mapei, Meskatone, Once...) ezartzen zuten lotura ezin zuten hautsi, eta etapa hauek nahi bezala burutzen zen, hau da, erritmo lasaiean azken kilometroak arte. Agian lehen aste horren gertaerarik aipagarriena itzuliko bi *sprinter*-rik onenak, Cipollini eta Baffi, etxera bueltatu behar izatea izan da. Seigarren etapan lehen mendate serioa zegoen, Sierra Nevada. Romingerrek bertan, itzuli guztian egin duena egin zuen, nahi zuena. Diferentzia handiak lortu zituen. Bere areriorik gogorrenak, Zulle eta Montoya-k denbora asko galtzen zuten bitartean, itzuli bikaina burutu duen Mikel Zarrabeitiak eusten zion hobekien suitzarrari.

Berriro etapa zailak etorri ziren eta lehen egunetan gertatutakoa errepikatu zen. Benidorm-en Romingerrek beste erakustaldi bat eman zuen. Mikel Zarrabeitiak aldiz, Sierra Nevada-n sortu zituen ilusioak sendotu zituen proba bikaina burutuz. Berriro ere, ezustekorik handiena Alex Zullek eman zuen.

Benidormetik aurrera, nahiz eta lasterketa ibilbiderik ikusgarrienean sartu, nahiko zozoa izan zen, Romingerren na-

gusitasuna zela eta. Lehiarik politena Mikelek eta Alex Zullek erakutsi zuten bigarren postua lortu nahiean.

Azken asterako ia sailkapen guztiak erabakita zeuden. Mapei-Clas taldeak ez zuen lasterketa Pirineotan kontrolatu zuen bezala kontrolatzeko beharrik eta ondorioz, itzulian izan diren ihesaldi sendo guztiak eman ziren. Hortaz, Jabert-ek Lakuetan, Voskanp-ek Narancon eta Marino Alonsok Segovian irabaztea lortu zuten. Ia beste garaipen guztiak Jalabert eta Romingerren artean banatu ziren. Partaidetza, beraz, eskasa izan zen.

Txirrindulari euskaldunak

Bestalde, itzuliaren alde positiboa aztertzerakoan txirrindulari euskaldunen izenak aipatu behar dira. Lehenik Mikel Zarrabeitia aipatuko nuke. Abadinokoak izugarriko itzulia egin du eta mendian ezezik, erlojuaren aurka ere ondo moldatzen dela erakutsi du. Azken urteetan asko hitz egin da Banestoko txirrindulariaz eta itzuli honetan esandako horiek egiaztatu ditu. Iñigo Cuesta ere bikain ibili da. Lehen urtean burutu duen itzulia osatzeko ilusioa baino zerbait gehiago behar da, klasea alegia. Abraham Olanok talde-lan handia egin du, egunero tropel buruan izan da Romingerrentzat lanean. Euskal txirrindularitzak etorkizun ona duela ikusi da.

Tony Romingerrek nagusitasuna erakutsi badu, ezin gaitzeko ahaztu bere taldekide guztiak egin duten lanaz. Talde honetako zenbait txirrindulari beste talderen batean egongo balira, ez genuke, seguruenik, aurtun estatuko txirrindulari baten garaipena ikusteko itxaron duguna itxaron beharrik.

Galtzaileak aipatzerakoan estatuko taldeak aipatuko nituzke. Egunero saiatu dira ihesaldiren bat eginen, baina ez dute behar bezalako indarrik izan. Nahiz eta zazpi garaipen eta erregularitatearen elastikoa lortu, ONCEk ere ez du uste bezalako itzulia burutu. Alex Zullek laugarren postua lortu du, baina talde honek ez duela aurreko urteetako sendotasuna erakutsi. Herminio Diaz-Zabala, Leanizbarrutia eta Breukink gutxi azaldu dira tropel buruan.

Orokorrean partaidetza eskasa izan da. Lasterketan hamazazpi talde izan arren, bost edo sei bakarrik ibili dira lehian. Tourra eta Giroarekin konparatu nahi duten lasterketa batek ezin du F.I.C.P-ko ("Federación Internacional de Ciclismo Profesional") sailkapeneko lehen 50 sailkatuetatik 9 txirrindulari bakarrik irtera puntuan eduki.

Hurrengo urtean ere arazo berberarekin topa daitezke, itzulia irailan baita eta ordurako txirrindulariak, moralki behintzat, nekatuta egoten baitira.

Azkenik zera esan nahi nuke: txirrindulari denak duten onena eman dutela eta, nahiz eta ikuskizun handirik ez izan edo ikusitakoa beti txirrindulari berberak eskaini, denak zoriondu behar direla egindako ahaleginaz.

Ormendik
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

MILIKOST

**LIBURDENDA
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

Eskola

-ANDOAIN-

La Salle-Berrozpe ikastetxea

Zortzigarrenen ikasbidaia

La Salle-Berrozpe ikastetxeko O.H.O. zortzigarrenen ikaslagunek apirilaren 28-29-30 eta maiatza 1-2an ikasbidaia zoragarri bat egin zuten. Gu, zazpigarrenenok, jakinmin ez ibili gara, laster tokatuko baitzaigu. Hori dela eta, zortzigarrenen ikasle ordezkari, irakasle eta guraso bati elkarrizketa bat egitea pentsatu dugu. Denok prest, Katalunia aldera goaz!

Gu: Zein helburu zuen bidaiak?

Irak: Bi motatako helburuak planteatu genituen; alde batetik, kulturalak: herri desberdin bat ezagutzeko, dauzkan aztarna eta monumentu aberatsak, eta baita interesgarria iruditu zitzaigun ere beste hizkuntza bat hitz egiten duen herri batera bertaratzea. Bestalde, hainbeste urte elkarrekin egon ondoren, ikasgarria jai giroan amaitzea, hau da, ondo pasatzea.

Gu: Joateko egin behar izan dituzuen prestataketak?

Irak: Diru-iturriak bilatu, eta programa burutzeko behar ziren gestioak landu. Adibidez, Anoetara joan ginen pegatak ipintzera, baita bertsolari txapelketara ere, errifak saldu genituen, e.a. Baina aldi berean, urtean zehar gure aldetik, dirua aurrezten aritu gara.

Irak: Bai, horrez gain, beste bi atal zeuden: batetik, autobusa, albergea, bisitaldien baimenak, e.a., eta bestetik, informazio materiala sortu gu-

rasoentzat, eguneroko plangintza ezagut zezaten, eta baita bidaiarientzat, ikusiko genuena pixka bat lantzeko.

Gu: Orduan, zenbait balio izan du bidaiak?

Irak: Bakoitzeko hogeita bi mila pezeta, baina azkenean



Euskaldun ospetsu batekin egoteko aukera ere izan zuten

URBIETA ANTIAK GARRAIOAK

GARRAIOAK ORO HAR

- Ganadu, txirbil, zerrauts, lasto eta baserrirako behar duzuna
- Bolketea eta grua duten kamioiak ditugu

KALITATEZKO SU EGURRA

- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etxerainoko zerbitzua

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL

FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK EDURNE

KALETXIKI 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

bakoitzak zortzi mila pezeta jarri behar izan du poltsikotik. Beste guztia, esandako diru-iturrietatik at, ikastetxearen laguntzarekin eta Guraso Elkartearenarekin osatu dugu.

Gu: Zure seme-alaba urduri al zegoen joan baino lehen?

Guras: Bai noski, egunero ez dira horrelakoak egiten. Prestaketa lanetan ere aritzen zen.

Gu: Zer moduz ostatuko zerbitzuak?

Ikas: Gustatu zaizkigu; janaria ona zegoen, logelak, komunak e.a. ere ongi zeuden. Inguruan jardin ederrak zituen ostatuak, iturri eta lore askorekin. Bartzelonan bertan zegoen, baina oso giro lasaia aurkitu dugu.

Gu: Zer motatako ekintzak egin dituzue?

Ikas: Bi helbururekin zerikusia zutenak: Bartzelonan zooa, Sagrada Familia, Ziudadela parkea, Zientzia Museoa, Planetarium-a, Güell parkea, Montjuic-eko alde olimpikoa, atrakzio parkea, Nou Camp-en entrenamendu bat, eta gero Bakerorekin bisitaldia, paseo bat Ramblas-etan, e.a.

Gu: Non disfrutatu duzue gehien?

Ikas: Gauza ederrak zeuden; Zientzia Museoa adibidez,



Parc Güell-en

oso ondo, gauzak ikutzen direlako. Atrakzio parkean ere primeran, noski, gainera noriatik Bartzelona osoa ikusten da. Eta, Nou Camp-en jokalariekin denak zora-tzen.

Gu: Kataluniako berezitasunen bat.

Ikas: Txapela alde batera erorita, otorduen artean ogia tomatearekin eta noski, katalana alde guztietan entzuten zen. Hitzen bat ere ikasi dugu.

Gu: Nolako jendea aurkitu duzue?

Ikas: Denetik, baita pijoak ere. Baina zerbait azpimarratzekotan, guri euskaraz entzunda, batzuek agertzen zuten interesa.

Gu: Zein da gurasoen iritzia bidaiari honetaz?

Guras: Ona, zeren horrela neska-mutilak errelajatu egiten dira. Pixka bat ere kezkatzen gara, noski, eta gustatuko litzaiguke, adibidez, telefonoz hitz egitea, baina ongi ibiltzen dira.

Gu: Ardura handia izaten da irakasleentzat?

Irakas: Beti daukazu kezka barruan, baina jendeak emandako oharrak ondo bete ditu, oso ondo portatu dira orokorrean, beraz, oso pozik itzuli gara.

Gu: Berririo joango al zinatekete?

Ikas: BAI!!!





ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea


LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN



LAGUNAK
KARROZERIA

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN



MAPFRE

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Karteruaneko Kontxa eta Juana

Andoaindar gutxi izango dira hirurogei urtetik gorakoak "karteruaneko" eskolatik igaro ez direnak. Eskola hau Kale Nagusiko hamazazpigarrenean zegoen, gaur harategia dagoen lekuan. Behin hiru-lau urte ezkerero hura zen garai hartako hartzaindegi eta ikastola gure herrian. Ez zen ikuilua, baina ez eta saloi dotorea ere. Hogeita hamar metro inguru izango zituen, bazterretan egurrezko aulkiz inguratuta eta erdian Juana atzera eta aurrera arbas-ta luze batekin hanka-zainak berotzeko geldi ez zegoenari. Han ikasten ziren lehenengo otoitzak eta batez ere, Aitagurea sehaska joku bezala agur eginez. Bosten bat urterekin hasten zen Kontxa Arretxe zerbait irakurri eta *katona* eta Jaunartze txikirako dotri-na erakusten.

Hau oso señoirita fina zen, bordadora, denda txiki bat ere bazuen. Baina bere lanik atseginena Elizan Amabirjiñari lorak jar-tzea izaten zen. Hala eta guztiz ere, ez uste izan santuak jazteko bokaziorik zuenik! Bere gazte denboran maitemindu egin baitzen Javier Ochoa handiarekin, gero *greko-roman* munduko txapel-duna izan zenarekin.

Hara nola ezagutu eta lagun kuttunak izan ziren: 1.903an Plazaolako trenbidea egin zen eta horretarako Nafarroa aldetik gizon asko etorri zen hona lanera. Horien artean Urdiaingo bi anai, Ochoatarrak, mutil gazte bikainak. Kontxa neska ederra zen eta laister egin ziren adiskide samurrak eta elkarri begira jarri ziren. Baina hemengo lanak bukatu zirenean Javier Ameriketara joan zen borrokan ikastera eta hain gizon famatua eta handia izan zen mundu guztian ezen ahaztu baitzen Andoian eta bere lagunaz. Hara gure Kontxa bere bizi guztirako oroipen gozo harekin nola geldi-tu zen gai.

Arretxetarrak oso ezagunak eta jatorrak ziren Andoainen.

■ Joxe Eizmendi

Bertsotan




Billabonako Ion Zaldua
Andoiango bertso eskola

Billabonako zubia

Aspalditikan aurkitzen gara
zubiakin istilutan,
Santiagoko bidea omen
jakintsu batzuen hitzetan;
baina horrela badira hauek
hemengo zubi guztitan,
ez pentsa broma denikan,
hasia naiz ni egitan, (bis)
Bruselaraino eman artean
ez dadukate onikan,
ez al da hemen hoi konpontzeko
kapaza den gizonikan. (bis)

Zenbat pertsona ta zenbat auto
ibili bere gainean,
zenbat istilu eguna hasi
ta bukatu bitartean,
zenbat pertsona hitzeiten hasi
eta buka ezinean,
berak dun zailtasunean,
kamioiak pasatzean, (bis)
ezin pasatu pertsonak eta
kamioiak bik batean,
ez al zerate lanen hasiko
zerbait gertatu artean. (bis)

Doinua: Leiho ertzetik





MLARRAMENDI

MANUEL
LARRAMENDI

Kultur
Bazkuna

GUREA
PLAZARATUZ,
BESTEENAZ
ABERASTUZ,

GUREA
INDARTZEKO

II

GAUR, EZ BIHAR!!

ETORKIZUNA ETA INDARRA



barkekin

HERRI BATASUNA



**Herriaren
Alde**



ENA